



Lingua Vasconum
Euskararen
Lingua Navarrorum Baskische
Agenda
Sprache Baskische Täl
Estrategikoa
Baskitski Jazyk
2013-2016

Baskisk Sprog Jelzik Baskiski
Bask Sprok Baski Ezin
Bizikidetzarako hizkuntza bizia

Bask Nielv Lingua Vasca
Llengua Vasca Lengua Vasca
Langue Basque Basque
Language Euskera
Üskara Euskerie Euskara



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016

Bizikidetzarako hizkuntza bizia



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2014ko urria

Ale-kopurua: 1.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01001 Vitoria-Gasteiz

Azala eta
maketazioa: Jose Luis Agote

Inprimatzailea: Gráficas Irudi, S.A.

ISBN: 978-84-457-3350-9

Legezko Gordailua: VI 593-2014

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA

Lehendakaritza, 2014ko ekainaren 24ean

Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016 Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2014ko ekainaren 24ko batzarrean, eta egun horretan bertan, Lehendakaria buru zela eta Gobernu osoa bertan zela, euskal gizarteari aurkeztu zitzaion Lehendakaritzaren egoitzan eginiko ekitaldian.

Argitalpen honetan jasotzen dira, Euskararen Agenda Estrategikoaren testuaren atari moduan, aipatu aurkezpenean Lehendakariak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eginiko hitzaldiak.

Aurkibidea

Orrialdea

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOAREN AURKEZPEN HITZALDIAK

Iñigo Urkullu Renteria, Euskadiko Lehendakaria	9
Cristina Uriarte Toledo, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua	15
Patxi Bazterrika Galparsoro, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.....	19
o. SARRERA	27
1. AURREKARIAK.....	28
2. KUDEAKETA-EREDUA, JARRAIPENA ETA PARTE-HARTZEA.....	30
2.1 Euskara 21. Itun berritu baterantz	33
2.2 ESEP	36
3. LORTU NAHI DITUGUN HELBURUAK EDO AURRERAPAUZO NEURGARRIAK ...	36
3.1 Ezagutza eta erabilera	42
3.2 Arnasguneak.....	51
3.3 Familiak.....	52
3.4 Hiri handietako euskararen erabilera	54
3.5 Elebitasun pasiboa: euskaldun hartzailleak	56
3.6 Kultur kontsumoa	58
3.7 Etorkinengana hurbiltzea	61
3.8 Komunikatzeko estandarrak	62
3.9 Hizkuntza eskubideak.....	64
3.10 Euskarazko jardunaren erakargarritasuna eta prestigioa.....	66
3.11 Informazio eta komunikazioaren teknologiak.....	68
3.12 Hizkuntza politikaren inguruan akordioa	70
3.13 Kanpo proiektzioa	71
4. KOSTU AURREIKUSPENA	74
5. OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA.....	75

Iñigo Urkullu Renteria, Euskadiko Lehendakariaren hitzaldia



Euskararen Agenda Estrategikoaren aurkezpen ekitaldian

Egun on guztioi, eskerrik asko gaur hona etorri izanagatik.

Euskarak elkartu gaitu gaur hemen.

Euskara gure gizartearen osagarri funtsezkoa delako. Guztion ondarea, bai, baina, gainera, guztion hizkuntza izatea nahi dugulako. Euskarak denon premia duelako. Guk geuk, gutariko bakoitzak, euskararen premia dugulako. Euskarak sekula imajinatu ere ezin zitekeen aurrerakada eman duen honetan, bere etorkizuna inoiz baino garbiago herritarron esku dagoelako.

Horregatik guztiagatik batu gara gaur hemen.

Ni neronen eta Gobernu honen arduradunon konbentzimendu sakon bat euskal gizartearen aurrean aldarrikatu nahi dut: **euskarak gizartearen mobilizazio berri bat behar du.**

Mobilizazio sozial berri bat, ilusio, ekinaldi, bultzada berri bat behar du euskarak.

Etxepareren “euskara jalgi hadi mundura, jalgi hadi plazara” hartatik etorri gara, haur eta gaztetxo gehienen irakas hizkuntza euskara izatera, unibertsitateko hainbat eta hainbat ikasketa euskaraz egitera, tesi doktoralak euskaraz egitera edo munduan zehar dozenaka hizkuntzatara itzultzen diren literatur lanak euskaraz sortzera.

Baina badakigu euskararen bizi-indarra daukagula jokoan, euskara egunerokoan ere naturaltasunez erabiltzen dugun hizkuntza izatea dugun erronka.

Horregatik diot euskarak mobilizazio sozial berri bat behar duela. Herritar guztiok inplikatzeko gaituen mobilizazioa. Herri erakundeok eta gizarte eragileak partaide behar gaituen mobilizazioa. Inor kanpoan, atzean, alboan edo bazterrean utziko ez duen mobilizazioa.

Zein da mobilizazio horren mamia?

Euskara gero eta gehiago erabiltzea. Ez dago dudarik.

Erabili, erabili eta, berriro ere, erabili. Horretan dago gakoa: erabiltzeko aukera guztiak gehiago baliatzea, euskaraz gozatzea.

“Bukatu dira aitzakiak!” Horixe esan zien ozenki Obama presidenteak Estatu Batuetako komunitate afro-amerikarrek bere kideei, bera bezalakoei alegia. Obamak hitzaldi gogoangarri batean hauxe esan zien: “Honela hitz egin behar diegu geure seme-alabei: bai, auzo txiro batean bizi bazara, arazo batzuei aurre egin beharko diezu; eta egoitza-auzo aberatsetako jendeek izango ez dituzten arazoak dira horiek.”

Gogora ekarri zituen horrela gizarteko arazo estrukturalak. Baina segidan hauxe gaineratu zuen presidenteak: “Baina hori ez da arrazoi nahikoa nota txarrak ateratzeko edo ikasketak bertan behera uzteko. Bukatu dira aitzakiak! Inork ez du zure etorkizuna idatzita utzi.”

Oso mezu garbia adierazi zien: berdintasuna lortzeko urrats ezinbestekoena, norberaren konpromisoa da.

Horrela amaitu zuen arrazoibidea: “Aukerak sortzeko indar eragile bat izan behar du Gobernuak, bai. Berdintasuna sortzeko indar eragile bat izan behar du Gobernuak, bai! Baina, aldez edo moldez, geu gara egunez egun geure etorkizuna landu behar dugunak.”

Ahalegin handirik gabe ekar dezakegu hitz horien zentzu betea euskara biziberritzeko ahaleginaren eremura. Izan ere, euskarak Euskadiko Autonomia Erkidegoan azken hiru hamarkadotan izan duen hazkundera ezin uler liteke izan dituen lege-babesik gabe, herri-erakundeen hizkuntza politikaren ekimen planifikaturik gabe, giza eta diru baliabiderik gabe, gizarte-ekimenik gabe. Baina batez ere, eta oso bereziki, herri-tarren euskararekiko atxikimendurik eta euskararen aldeko hautu praktikorik gabe.

Elementu horien guztien uztardurak beharrezkoa izaten jarraitzen du etorkizunerako.

Izugarria da egin dugun aurrerabidea

Duela 30 urteko ikuspegitik begiratuko bagenio gure gaurko egoerari, “ametsa” edo “pentsaezina” bezalako hitzak erabiliko genituzke. Duela 30 urte, adibidez, eskal hiztunen ehuneko altuenak 64 urtetik gorako adinetan biltzen ziren. Gaur, berriz, 35 urtetik beherakoetan daude. Horrez gain, 25 urtetik beherako gazteen hiru laurden dira, gaur egun, euskaldunak.

Erabilerari dagokionez, berriz, garbi dugu bilakaeraren nondik norakoa: hazkundera, eremu formaletan gertatzen ari da bereziki.

Paradoxikoa da: euskararen hazkundearekin batera, zeharo aldatu dira euskal hiztunaren ezaugarri nagusiak. Euskal gizartea bera ere zeharo aldatu den bezala. Euskaldunok inoiz baino gehiago gara. Inoiz baino toki eta zeregin gehiagotan jarduten dugu euskaraz. Baina inoiz baino sakabanatuago bizi gara.

Aipatzeko modukoa da, erabileran duen eraginarengatik, euskaldunen erdia baino gehiago 6 udalerrri handienetan bizi dela, eta udalerrri horietan euskaldunen kopurua ez da % 50era iristen. Eta, dagoeneko, 35 urtetik beherako euskal hiztunen erdia baino gehiago dira euskaldun berriak.

Lehen ez bezala, familia askotan, gehienetan, gutxienez euskaldun bat dago. Baina, aldi berean, euskararen historian sekula izan diren baino euskaldun gehiago dira hizkuntza aldetik mistoak diren familia eta lagunarteetan bizi direnak.

Euskara, zorionez, gero eta euskal herritar gehiagoren hizkuntza da, bigarren hizkuntza gisa eskuratua. Eta gero eta gutxiagoren lehen hizkuntza bihurtzeko arriskua saihestea dagokigu.

Erronka berriak ditu euskarak

Gizartearen beraren etengabeko aldaketetatik eta euskararen beraren hazkundearen ezaugarrietatik datozkion erronka berriak. Erronka berriek erantzun berriak behar dituzte, berriak eta eraginkorrak.

Badira gutxienez bi jarrera euskarak behar duen mobilizazio berri horretarako paralizatzaileak liratekeenak. Paralizatzailea litzateke, dudarik gabe, autoatseginke-ria. Baita, Erkidegoko ikuspegitik begiratuta, euskararen balizko paradisua hirugarren batzuen eskutik letorkeen salbazio edo mirariei lotzea. Zernahi dela ere ustezko hirugarren salbatzaile hori, dela estatus juridikoaren edo aginte makilaren aldaketa izatea.

Erronka berriak, erantzun berriak

Nire ustez, behar ditugu erantzun berriak, errezeta berriak. Behar ditugu gertakariei begiratzeko modu berriak, gauzak egiteko modu berriak. Behar dugu daukagun potentzialitate guztia aktibatuta.

Gobernu honek eta euskal gizarte honek bat eginda urratu behar dute bide berria. Helburua beti da bat eta bera: elebitasun gero eta orekatuago bat, gero eta gizarte kohesionatuago baten mesedean. Horrek eskatzen du, besteak beste, gero eta herritar elebidun gehiago, gizarte gero eta elebidunago batean, euskara gero eta gehiago erabiltzen duen gizartea.

Gobernuak bere gain hartua du, tinko, langintza horretan dagokion eginkizuna

Ahalik eta adostasunik zabal eta sendoena bilatu nahi dugu.

Sustapena ardatz nagusi duen hizkuntza politikarekin konprometituta gaude. Herritar guztion hizkuntza eskubideak behar bezala babesteko beti prest. Oso konzistente garelako oraindik ere Jaurlearitzak berak kudeaturiko zerbitzu publiko nahi

baino gehiagotan ez direla beti efektiboki betetzen hizkuntza eskubideak. Beraz, hobekuntza tarte handia daukagu horretan ibiltzeko.

Ez gaude konforme hizkuntza eskubideen betetze mailarekin, nahiz eta asko hobetu dugun urteon joanean. Ez zaigu borondate eta gogorik falta, hori gabe ezin da. Baina demagogiaz itsutu nahi ez badugu, oso presente eduki dezagun gure gizarteko hizkuntza desorekak eragiten dituen zailtasunak traba handiak direla. Horiek gainditzeko hobetu, hobetu eta arian-arian hobetu beste biderik ez dago. Horretan jarraituko dugu.

Honetara ezker, bihotzez eskertu nahi dizuet sailburuoi eta Jaurlearitzako gainerrako goi-kargudunoi gaur hemen egotea.

Zuen presentziak garbi erakusten du euskal gizarte osoari gaur aurkezten diogun Euskararen Agenda Estrategiko hau ez dela Gobernuaren sail edo zati baten kontua. Eusko Jaurlearitza oso-osoaren lanabesa da.

Eusko Jaurlearitza oso-osoaren helburua delako euskarari bere biziraupena ez ezik bere garapena ere segurtatzeko behar besteko tokia egitea, gainontzeko hizkuntzen ondoan, gainontzeko hizkuntzekin bizikidetzan. Herritarren arteko bizikidetzan ahalik eta berdinkideena eta harmoniatsuen baita Jaurlearitzaren helburua.

Bereziki eskertu nahi dut hona etorri zareten euskal gizarteko askotariko eragileon eta euskalgintza sozialaren hainbat ordezkariaren presentzia. Bene-benetan, eskerrik asko.

Gobernu Batzordean onartu eta segidan, beste inori baino lehen, zuei aurkeztu nahi izan dizuegu Euskararen Agenda Estrategikoa. Gobernu honen legealdi honetako hizkuntza politikaren ekimen planifikatuaren tresna eta makulu dena. Euskarak behar duen mobilizazio sozial berrirako tresna den Agenda.

Mobilizazio sozial berri horrek eskatzen du horizonte garbi bat izatea, ibilbide bat zehaztea, konpromiso partekatua eta elkarlana askotarikoen artean. Horretara dator Agenda, eta konpromiso partekatu horren irudia da hemen denok, euskalgintza instituzionalaren eta euskalgintza sozialaren ordezkariok osatu duguna.

Zuek guztiok, eta zuek bezala modu batera edo bestera euskalgintzan ari diren gainerakoak, denok zarete, denok gara beharrezkoak euskararentzat etorkizun bizi-bizia eraikitzeko. Hobe bide hori elkarren eskutik egiten badugu.

Zuen guztion esku jartzen dugu Agenda berria. Elkarlanerako tresna eta deia da. Denon konpromisoa izango da, bakoitzaren eremuan, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea. Beti ere, eta ororen gainetik, errespetatzeko herritar guztien hizkuntza eskubideak, euskara edo gaztelania aukeratu eta erabiltzeko eskubidea.

Pertsonak ditugu helburu

Pertsonak helburu ditugulako, ez dugu inor atzean utzi nahi euskara biziberri-tzeko ahaleginean.

Euskara biziberritzeko lanean ere, gizartearen kohesioa baita gure iparra: inklusioa eta integrazioa, inoiz ez eskusioa, inoiz ez hizkuntza bat bestearen gaineratik. Garai berriak ausardia eskatzen digu, noski.

Ausardia, ez ausarkeria.

Ausardia, euskara ezberdin bizi dugunon artean euskararen aurrerabide eraginkorra adosten ahalegintzeko. Ausardia, anbizioidunak izateko eta amets egiteko. Baina frustrazio iturri besterik ez diren ameskerietan erori gabe. Ausardia, ditugun mugak onartzeko eta euskal gizartearengan sinesteko. Norberak nahi lukeen erritmoa eta ingurukoek nahi lituzketenak konpasean jartzeko. Euskaratik urrun egon daitekeena pertsuasioaren bidez erakartzen ahalegintzeko.

Ausardia, nola ez, euskal herritar guztien hizkuntza eskubideak babesteko, gizarte bizikidetzaren eta kohesioaren balioak gidari hartuta. Ausardia, jakina, euskara eta gaztelaniaren arteko oreka puntura etengabe hurbiltzeko.

Norabide horretan doa, hain zuzen, gaur aurkezten dugun Agenda Estrategikoa.

Urteotako lanak erakutsi digu ekimen planifikatua dela arrakastaren giltzetako bat

Euskararen lurraldean, Euskal Herrian, hiru eremu administratiboetan euskarak izan duen bilakaera arras ezberdinak erakutsi digu zein erabakigarriak diren hizkuntza politika eta baliabideak.

Lankidetzeta eta adostasunarekin batera, euskarak aldekoa du gure herritarren atxikimendua. Aldekoa du, Euskal Autonomia Erkidegoan, 30 urteotako hazkunde eredugarria ahalbidetu duen lege babesa. Aldekoa du Eusko Jaurlaritzak, gainerako herri erakundeekin eta gizarte eragile nagusiekin lankidetzan, gauzatzen duen hizkuntza politika.

Euskararen Agenda Estrategikoa da, hain zuzen ere, hizkuntza politika emankor horren azken emaitza, plangintzaren alorrean.

Gobernatzea, besteak beste, lehenetasunak ezartzea da, eta euskara biziberritzeko ahalegina lehenetasuna da Gobernu honen jardueran. Eraikitzen lagundu nahi dugun euskal gizartearen gizarte ekitaldiboa da, ezberdinak ezberdin tratatzen dakiena. Ahulenaren alde egiten dakien gizarte nahi dugu, baita hizkuntza kontuetan ere.

Arreta berezia jarri behar dugu gure gazteengan

Ez bakarrik, Lete handiak esan zuzenez, “gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak” direlako. Badugu arreta gazteengan jartzeko beste arrazoi bat, eta funtsezkoa: gazteen artean ditugu euskaldun proportzio handienak.

Gazteek euskara dute. Euskarak gazteak ditu.

Hori baieztatzen duen azken datua: selektibitate frogaren egiterakoan, ikasleen % 68k aukeratu du frogaren euskaraz egitea. Gazteen munduetan, gainera, arnas berria hartzen du euskarak. Batez ere gazteek eramanda dabil euskara eroso sare birtualen labirintoan. Gazteen erabileratik edan behar du euskarak bizi-indarraren ur fres-

koa. Gazteen ezpainenetan loratuko da euskara berriaren adierazgarritasuna. Hori hala izango da, gazteek euskara selektibitateko ikasgelatik unibertsitateko pasilloetara eta kafetegira ere eramateko hautua egiten duten neurrian.

Gazteen bizitasunaz iritsiko da etorkizunera gure hizkuntza, pozarren.

Bukatzeko

Konplexua da hizkuntza biziberritzeko eta normalizatzeko lana. Konplexua eta, aldi berean, liluragarria. Liluragarria delako gizarte batek bere buruarentzat aukeratu duen izaeraren eraikuntzan parte hartzea.

Euskal gizarteak elebiduna izan nahi duela erakusten ari da. Sakoneko gizarte-aldaketa da hori. Gizarte-aldaketa horren arrakasta bidean gako nagusietarikoa da, nagusia ez bada, euskarazko jarduna eta euskarazko sorkuntza erakargarria izatea. Euskarazko jardunak euskal hitzunontzat izan behar du erakargarria. Euskararik ez dakitenentzat ere, euskarara hurbiltzeko urratsak eman ditzaten.

Prestigio soziala da, ondo dakigunez, erakargarritasunaren zutabeetako bat.

Gure gizarteak ondo baloratzen du euskara jakitea. Ospe ona du euskaraz dakienak. Euskarak behar duen mobilizazio berriak, ordea, jauzi bat planteatu behar du prestigioaren alorrean ere: euskara jakitea prestigiozkoa den bezala izan behar du prestigiozkoa euskara erabiltzeak ere. Eguneroko eginkizunetarako bezala, gozamen eta plazer hutsezkoetan ere. Jendaurrean bezala, eremu intimoetan ere.

“Nik behar dut euskara”: hori da euskararen etorkizuna eta bizi-endarra bermatzera eraman gaitzakeen giltza. “Nik behar dut euskara” esatean, hobetzen eta gaurkotzen ari gara gure historian garrantzi ukaezina izan duen “euskarak behar zaitu” hura.

Euskararen Agenda Estrategikoaren bideak badu funtsezko filosofia bat

Euskarak jarrera positiboa behar du. Hil kanpainen eta haserrearen tokian, milaka koloretako alaitasuna jarriko dituen. Gutariko bakoitzaren inplikazio aktiboa eragingo duen jarrera. Euskara irribarrez ezpaineratuko diguna.

Hitz batean, euskarak poziktibity nahi du.

Hori da guk, herri agintariok, gizarte eragileok eta herritarrok eskaini behar duguna. Aitzakiarik gabe. “Nik behar dut euskara” goiburu hartu, eta ekin diezaiozun, denok elkarrekin, euskara erabiltzeko gizarte mobilizazio berriari, euskaraz hitz eginenez, euskara erabiliz.

Poziktibity: sortu eta finkatu ditzagun euskara erabiltzeko aukerak.

Eskerrik asko. Moitas grazas. Moltes gracias. Muchas gracias.

Cristina Uriarte Toledo, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren hitzaldia



Euskararen Agenda Estrategikoaren aurkezpen ekitaldian

Lehendakari jauna, gobernukideok, jaun-andreok, eguerdi on eta ongi etorri ekitaldi honetara.

Lehen-lehenik, eskertu nahi dizuet gaur hona etorri izana. Gobernu Batzordeak onartu berri du Euskararen Agenda Estrategikoa, eta zuen aurrean aurkezten dugu. Pozgarria da guretzat ekimen honen berri ematea. Alde batetik, dokumentu hau euskararen sustapenari bultzada berritu bat ematera datorrelako. Beste alde batetik, argi erakusten duelako Gobernu honek euskararekin duen konpromisoa.

Bereziki eskertu nahi zaituztet gaur hona etortzeagatik. Izan ere, euskara biziberritzen jarraitzeko, nahitaezkoa baita zuen guztion lana, zuen guztion ekarpena. Guztion arteko elkarlana. Gaurtik aurrera badugu beste tresna bat: Euskararen Agenda Estrategikoa. Gobernu honen legealdirako Agenda da.

Euskararen Agenda Estrategikoaren marko nagusia “Euskara 21. Itun berritu bate-rantz” dokumentua da. Dokumentu horrek XXI. mende hasierako hizkuntza politika-ren oinarriak jaso zituen. Euskararen Aholku Batzordeak zehaztu zituen oinarri horiek, partaidetza eta adostasun zabala izan zuen gogoeta prozesu batean. Hemen zaude-ten hainbatena, besteak beste. Printzipio, lehentasun eta lan ildo haiek daude Eusko Jaurlaritzaren legealdi honetarako Gobernu Programaren oinarrian.

Gobernu Programa horren helburuetako bat aipatuko dizuet. Honako hau, zehazki: “Hizkuntza politika gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa ezartzeko beharrezkoak diren arauzko tresnak eta sailen arteko lanabesak garatzea”. Hori dio

Gobernu Programak, euskarari eta hizkuntza bizikidetzari loturiko konpromisoez ari denean. Eta xede hori betetzeko bidean pauso garrantzitsu bat da, gaur aurkezten dugun Agenda Estrategikoa.

Hizkuntza politikaren zehar-lerrotasuna praktikara eramaten ari da Gobernu hau. Saiatzen gara. Adibidez, Euskara Atalak sortu ditugu sail guztietan. Euskara Atal horiek beren gain hartu dute Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plan Nagusia betetzearen ardura. Eta Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzarekin lankidetzan ari dira lan hori gauzatzeko.

Horrela ulertzen du Gobernu honek euskararekiko konpromisoa. Modu kolegiatuan. Denok gobernu jardueran kontuan hartu beharreko irizpide moduan. Gure gobernatzeko eraren marka gisa. Hizkuntza politikak gizarte moderno baten eraikuntzan izan behar duen tokiaren erakusgarri bezala.

Euskararen Agenda Estrategikoak badu beste oinarri bat. Euskararen Aholku Batzordeak 2012an egin eta onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). “Euskara 21. Itun berri baterantz” dokumentuaren ildo, proposamen eta lehentasunak aplikatzea da ESEPen asmoa. Eusko Jaurlaritzak 2012an onartu zuen ESEP, eta 2013an berretsi. Eusko Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n bere egin zuen. ESEPe Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eguneratzen du.

Aurrekari horietatik dator, gaur onartu eta aurkezten dugun Euskararen Agenda Estrategikoa. Ez garela hutsetik hasi, alegia. Agenda honetan jasotzen dira, nagusiki, ESEPe Eusko Jaurlaritzari ezartzen dizkion eginkizunak, eta eginkizun horiei beste hainbat ekintza berri eransten zaizkie. Eginkizun horiek guztiak 2013-2016 urtealdian bideratu edo burutuko dira. Batzuk martxan ditugu dagoeneko, eta gainerakoak martxan jarriko ditugu legealdi barruan. Hori da helburua.

Agenda Estrategiko hau osatzerakoan, beste dokumentu batzuk ere aintzat hartu dira. Agendan eranskin gisa txertatu ditugu lau Plan. Agendaren parte dira lau Plan hauek:

- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plan Nagusia (2013-2017).
- Osakidetzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana (2013-2019),
- EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2009-2017), eta
- EITBko Euskararen Erabilerarako Plana (2013-2016).

Horiez gain, une honetan beste egitasmo bat lantzen ari da: Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plangintza. Dokumentu hori onartzen denean, Euskararen Agenda Estrategikoari erantsiko zaio, baita ere.

Patxi Baztarrika jaunak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak berehala aurkeztuko dizkigu Euskararen Agenda Estrategikoaren eduki nagusiak. Baina berari hitza pasatu aurretik, gogoeta bat partekatu nahi nuke zuekin.

Euskara biziberritzeko lanean denok gara beharrezkoak. Denok gara garrantzitsuak. Herri erakundeok bezala, gizarte eragileak ere. Kolektiboak bezala, euskal herritar bakoitza ere. Gutariko bakoitza, alegia. Eta, denok beharrezkoak izanik, are beharrezkoagoa da adostasuna lortzeko etengabeko ahalegina. Ahalegin kritikoa, bai. Kritika arrazoitua delako hobekuntzaren baldintzetako bat. Eta hizkuntza politikak etengabeko hobekuntza behar du. Baina, neurri berean, ahalegin zintzoa. Hau da, leialtasunak gidatutako ahalegin eraikitzailea.

Eusko Jaurlaritzak konpromiso sendoa du gogoeta partekatua egitearekin. Adibide moduan, aipatzekoa da Euskara 21 gogoeta. Eta adibide egokia da, baita ere, euskararen inguruko oinarritzko diskurtsoak bateratze bidean jartzeko asmoz egunotan bideratzen ari garen prozesua, Euskararen Aholku Batzordearen markoan. Kontrastean sinesten dugu. Lankidetzat leialan sinesten dugu. Gure gizartearen kohesionatzen lagundu behar duen euskararen biziberritzeak ekimen solidarioa izan behar duelako. Askotarikoen, joera bateko eta bestekoen, gizarteko sektore ezberdinetako eragileen ekimena behar-beharrezkoa delako euskararen aldeko lana eraginkorra izateko. Eusko Jaurlaritzak, beraz, joera kolaboratzailea bultzatuko du, Euskararen Agenda Estrategikoa praktikara eramaterakoan. Gizarte eragileekiko osagarritasunaren ikuspegia bere egiten duelako.

Era berean, berrikuntza etengabearen ikuspegia ere zabaldu behar dugu euskararen sustapenerako lanetan. Berrikuntza sistematikoki bultzatu eta partekatu behar dugu. Euskara biziberritzeko lanean ari garen guztiok, ikerketa, garapena eta berrikuntzaren lanabesak erabili behar ditugu.

Etengabeko gogoeta egin behar dugu hizkuntza politikaren alorreko pausu eta proiektu guztiei buruz. Berrikuspen kritikoa eta esperimendazioa ezinbestekoak dira alor honetan ere. Gure gizarte oso bizkor aldatzen delako, eta etengabeko aldaketak etengabeko eguneratzea exijitzen digulako.

Eusko Jaurlaritzak ikuspegi horiek izango ditu gidari, Euskararen Agenda Estrategikoa praktikan gauzatzekoan.

Horregatik, zuen presentzia berriz ere eskertuz amaitu nahi dut. Oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritza osatzen dugun guztiontzat, zuen gertutasuna sentitzea eta erakusten diguzuen jarrera prestua konstatatzea. Mila esker gaur gurekin elkartzeagatik. Har ezazue Agenda hau elkarlanerako lanabes gisa.

Eta eskerrak eman nahi dizkiet Agenda hau egiteko lanean buru-belarri ibili diren guztiei.

Mila esker.

Patxi Baztarrika Galparsoro, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzaldia



Euskararen Agenda Estrategikoaren aurkezpen ekitaldian

Lehendakari jauna, sailburuok, Gobernuko lagunok, etorri zareten guztiok, egun on denoi.

Ezer baino lehen, nik ere eskerrak eman nahi ditut. Eskerrak Agenda hau egiten parte hartu duten guztiei, bai HPSko zuzendaritza-taldeari eta teknikariei, eta baita ere Jaurlaritzako Sail ezberdinetatik parte hartu duten guzti-guztiei. Eta esker ona eta aitormena oso bereziki bi pertsonari: Patxi Larrañaga eta Joseba Erkizia HABEren zuzendari nagusiari, bi horiek izan direlako Agenda honen injineru eta peoi nagusiak.

Oso argigarria da Agenda Estrategiko honen leloa: “bizikidetzarako hizkuntza bizia”. Alegia: Zer? Hizkuntza (hizkuntzari buruz ari gara). Nolakoa? Bizia. Zertarako? Bizikidetzarako.

Bizikidetzatza dugu helburu.

Eta bizikidetzarako behar-beharrezkoa da komunikazioa. Eta komunikaziorako, hizkuntza.

Hain zuzen ere gure arteko komunikazio-hizkuntza izatea da euskarari opa diogun etorkizuna.

Komunikaziorako erabilia den neurrian izango da zerbait tangiblea hizkuntza: hizkuntzak, existitu, berez ez baitira existitzen; hizkuntzak, hitzunen ezpainetan lekua duten neurrian, orduan bakarrik, existitzen dute. Hizkuntzak bainoago, existitu, hiztunak dira existitzen direnak.

Eta erabiltzen dugun neurrian bakarrik izango da hizkuntza bizia euskara. Lizardik aldarrikatu zuen hura, alegia: hizkuntza noranahikoa. Eta hori da, ez dago dudarik, hemen gauden guztiok nahi duguna: euskara, bizikidetzarako hizkuntza bizia izatea.

Orain, gure eta ondorengo belaunaldien erronka da euskararen jarraipena eta garapena bermatzea, euskararen hazkunde iraunkor bat bermatzea. Baina, iraunkortasun (edo sostenibilitate) horretarako, hizkuntza bizia izateko, euskarak behar du gaur duen baino erlazio askoz orekatuagoa gaztelaniarekin.

Gaztelaniarekiko duen desoreka itogarria gainditu eta hizkuntza bizi legez bermatzeko, behar ditugu gero eta euskaradun gehiago: bai, beharrezkoa dugu hori, baina ez da nahikoa. Euskaradun soilen ondoan behar ditugu baita ere euskararen erabiltzaile gehiago, euskaradun gehiago ez ezik euskaldun gehiago ere bai (hizkuntza jokabideaz euskaldun esan nahi dut). Behar dugu euskaldunek euskaldun izateari eustea, eta euskaradun huts direnetako hainbatek euskaldun izatera jauzi egitea. Euskararen erabiltzaile gehiago, eta erabiltzaile leialagoak: herri-erakundeak barne, noski. Hori guztia dago euskara hizkuntza bizia izateari lotua.

Bide horretan eraginkorrak izateko, osatu dugu, hain zuzen ere, Euskararen Agenda Estrategikoa.

Honelako helburu batek, jakina, denon inplikazioa eskatzen du, eta, aurren-aurrenik, herri erakundeon inplikazio sendoa. Eta inplikazio hori da Euskararen Agenda Estrategikoan zehaztu duguna. Gure inplikazioa eta, bide batez, gure leiho guztiak irekita eta beso guztiak luzatuta elkarlanerako.

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA ZIFRETAN

Euskararen Agenda Estrategikoak 13 lan-ildo definitzen ditu. 13 lan-ildo horietan, 34 ekimen edo jarduera-alor, eta 168 ekintza zehazten dira.

Ekintza horietatik, % 60 abian jarrita egongo da 2014ko amaierarako, eta % 75 2015eko amaierarako. Agendaren indarraldiaren amaieran, 2016ko bukaeran, ekintzen % 90etik gora abian izango dira.

Gainera, Agendak, sailburuak esan duen bezala, 168 ekintza horiez gainera, 4 Plan sektorial jasotzen ditu (Jaurlaritzaren V Euskara Plana, Justizia Administrazioakoa, Osakidetzaren II. Plana eta EITBrena; laster etorriko da bosgarrena, Ertzaintzarena).

Euskararen Agenda Estrategikoaren helburua da, aurrerapauso neurgarriak egitea Agendan zehazten diren 15 arloetan. 15 arloetako aurrerapauso neurgarri horien ebaluaziorako 38 adierazle finkatu dira.

Antolamenduari dagokionez, Agendaren gidaritzza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio, baina kudeaketa eta jarraipenerako bi organo eratuko dira, eta organo horietan, modu batera edo bestera, Jaurlaritzako Sail guztiak parte hartuko dute, eta hainbat organismo eta sozietatek: HABE, IVAP, Osakidetza, Etxepare eta EITB.

Agendak, noski, baliabideen aurreikuspena egiten du: 112.000.000 € urteko, hain zuzen ere.

Hori litzateke, esan dezagun, Euskararen Agenda Estrategikoa zifretan. Gatozen orain edukietara.

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOAREN EDUKI NAGUSIAK

Agendaren eduki nagusien perspektiba bat zuei emateko, aipatu ditugun 13 lan-ildo nagusiak azalduko ditut, labur-labur. Ez ditut 34 ekimenak azalduko, are gutxiago 168 ekintzak. Ez dugu horretarako denborarik, nahiz eta ekintza bakan batzuk aipatuko ditudan. Pantailan azalduko zaizkizue bata bestearen segidan 168 ekintzak. Nolanahi ere, eskura izango duzue amaieran Agendaren argitalpen xume bat.

1.- **Ezagutza eta erabilerari** dagokienez, hizkuntza jakitea da erabileraren ezinbesteko baldintza, nahiz eta ez den behar bestekoa erabilera bera bermatzeko. Bi esparru horiek, ezagutza eta erabilera, ondorengo belaunaldietan sendotzea izango dugu helburu.

Ezagerari dagokionez irakaskuntza sistemaren garrantzi erabakigarria kontuan izanik, helburua izango da ikasleek, euskara ardatz duen eskola eleaniztunaren bitartez, bi hizkuntza ofizialak, ahoz eta idatziz, era egokian erabiltzeko gaitasuna eskuratzeta. Eta aspaldiko hutsunea bete nahita, Lanbide Heziketan euskarazko eskaintzea sendotu eta B eredua ezartzeko plangintza jarriko dugu abian. Eta, helduen euskalduntzearen alorrean, 14 urteren ondoren, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berritua onartuko du HABEK, eta lehen aldiz, Europako Markoaren A1 eta A2 mailak definituko dira, euskararen oinarrizko ezagutza era masiboan zabaltzeari ematen diogun garrantzia azpimarratzeko, eta horrela Europako Markoaren aurreikuspen guztiak beteko ditu lehen aldiz euskarak (guztira 28 ekintza ezagutzaren arloan).

Erabilerari dagokionez, eta euskara bizia lortzeko helburuarekin, aisialdia, kirola, kultura eta bereziki gazte munduko komunikazioa hartu behar dugu kontuan, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko ekimen planifikatua eta heda-bideen funtsezko zeregina inola ere ahaztu gabe (**guztira 33 ekintza erabileraren arloan**).

2.- **Euskararen arnasmuneei** dagokienez, eta kontuan izanik esparru funtzionalak nahiz geografikoak izan daitezkeela arnasmune, arnasmune horiek definitu eta ezartzeko irizpideak lantzea izango da lehen pausoa (**guztira 5 ekintza arnasmune geografikoen arloan**).

3.- **Familia bidezko transmisioa** zaindu eta indartzea da, bestalde, Agenda honen oinarrizko ideia bat. Oso garrantzitsua da guraso berri guztiak jabetzea beren euskararekiko jarrerak eta erabilerak umeen hizkuntzaren jabetuntzan eta ohituretan duten eraginaz. Datozen urteotan berariazko ahalegina egingo dugu sentsibilizazioaren alo-

rrean, fokua guraso euskaldun berriengan eta bikote mistoetan jarriz (**guztira 8 ekintza famili transmisioaren arloan**).

4.- **Hiri handietako euskararen erabilera** hizpide hartuta, badakigu XXI. mendea hirien mendea dugula. Euskarak zelai horretan aritu behar du, ezinbestez. Egindako neurketek adierazten dutenez, gaur egun euskaldun kopuru handiena hiri giroan murgiltzen da. Beraz, ezinbestez saiatuko gara hirietan euskararen presentzia esparru ez formalean gerta dadin ahalbidetzen, batez ere gazteei begira (**guztira 8 ekintza hiri handien arloan**).

5.- **Euskaldun hartzaileak**, bestalde, areagotu egin dira. Agendaren helburuetako bat da euskararen mundura ahalik eta pertsona gehien erakartzea. Euskara ulertu eta zerbait erabiltzeko gai denak, euskal hiztunen erabilera aukerak areagotu egiten ditu. Helburu garrantzitsua izango da erabateko elebkarren multzoa gutxitzea eta elebidun pasiboen multzoa areagotzea, eta baita elebidun pasiboen errekonozimendua lantzea ere (**guztira 10 ekintza ezagutza pasiboaren arloan**).

6.- **Kultur kontsumoa** da, nola ez, eragin beharreko beste eremu garrantzitsu bat. Alor honetan, kalitatezko sorkuntza propioa dugu oinarri nagusia, mimetismoetatik urrunduz. Ezinbestekoa da euskarazko sorkuntzari eta euskaraz sortutakoaren kontsumoari eragiten dieten faktoreak aztertzea, bata zein bestea nola sustatu eta indartu erabakitzeko (**guztira 8 ekintza kultur kontsumoaren arloan**).

7.- **Euskara etorkinengana hurbiltzea** da, zalantzarik gabe, gure garaiak ezartzen digun erronketako bat. Azken urteotan hasitako bideari jarraipena emanez, eskolarekin, euskaltegiekin, toki erakundeekin eta gizarteratzearen arloko elkarteekin nahiz etorkinen elkarteekin lankidetzan, etorkinak eta haien seme-alabak euskarara hurbiltzeko eta euskal kulturaz jabetzeko egitasmoak bultzatuko ditugu (**guztira 5 ekintza etorkinen arloan**).

8.- Bestalde, hizkuntza biziaren perspektiban, etengabe landu eta garatu behar dira **euskararen komunikagarritasuna eta adierazkortasuna**. Hizkuntzak malgutasuna, zehaztasuna eta bizitasuna irabaz ditzan lan egingo dugu, gune geografiko euskaldunen eredugarritasuna kontuan hartuz eta hizkuntza baliabideak erabiliak izan daitezen bultzatuz (**guztira 5 ekintza euskararen komunikagarritasunaren arloan**).

9.- Euskararen auzian **hizkuntza eskubideen** atala garrantzitsua da, eta handia administrazioak bertan duen zeregina, erabakigarria: gero eta hobeto goazela bezain egia delako, oraindik ere asko dela egiteko geratzen zaiguna. Jaurlaritzaren sail guztiek jarrera sendoa izango dute herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko eta bideratzeko. Horregatik, Euskararen Agenda Estrategiko honen parte diren Erabilera Plan espezifikoetan (Eusko Jaurlaritzarena, Osakidetzarena, EITBrena, Justizia Administrazioarena eta laster Ertzaintzarena) euskara lan hizkuntza izatera bideratutako egitasmoak bultzatzeaz gainera, arreta berezia jarriko da zerbitzu hizkuntza normalizatua izan dadin, ororen gainetik errespetatuz herritarren hizkuntza eskubideak –euskara edo gaztelania, beraiek aukeratutako hizkuntza erabiltzeko eskubidea, alegia–.

Administrazioaz gain, enpresa pribatuek ere hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoa eta jarduna bere egin ditzaten lan egingo dugu. Hala ere, biztanleria da, herritargoa, honen guztiaren protagonista. Jakina, herritarrak dagokion administrazioaren babesa sumatu behar du, eta horretarako tresnak eta baliabideak garatuko ditugu. Lan ildo honetan garrantzitsua izango da Elebide eta Arartekoaren elkarlana (**guztira 15 ekintza hizkuntza eskubideen arloan**).

10.- Beste alor batera pasatuz, **euskarazko jardunaren erakargarritasuna eta prestigioa** areagotzeko lan egingo dugu. Aldendu egin behar dugu euskararen eta elebitasunaren gaineko irudi ezkor eta derrigorrezkoetatik; uste dugu, letxe txarra baztertu eta euskararekin irudi positiboak eta erakargarriak sortu eta lau haizetara zabaltzea dela bidea, euskaratik urrun dauden pertsonak euskarara erakarri nahi baditugu. Era-karmena eta prestigioa eskutik doazenez, euskara prestigiatzen duten jarduketak bultzatuko ditugu, gizartean lidergoa duten pertsonen laguntzaz (**guztira 8 ekintza prestigioaren arloan**).

11.- **Informazio eta komunikazioaren teknologiak** ezinbestekoak ditu euskarak ere, gizarte erabileraren erronkari eusteko, zeresanik ez gazteen artean. Euskarak baditu, alor honetan, indarguneak, hemengo bertako sortzaile eta erabiltzaileen dinamismoari esker, eta indargune horien garapena sustatu beharra dago. Beste zenbaiten artean, Interneten euskarazko edukiak sustatzea edo .eus domeinua sustatzea eginkizun ditugu (**guztira 20 ekintza IKTen arloan**).

12.- **Hizkuntza politikaren inguruko akordioarena** da beste ekimen-eremu bat. Konbentzimendu bat: adostasun sozial eta politikorik zabal eta sendoena da euskara biziberritzeari haizea eman diezaiokeen hausporik indartsuena. Ikuspegi horretatik, euskararen gaineko diskurtsoen kontrastea eta hurbiltzea, edo herritarren euskararekiko jarrera eta motibazioen mundua, eginkizunen artean izango ditugu (**guztira 2 ekintza sakon eta iraunkor hizkuntza politikarekiko adostasunaren arloan**).

13.- Azkenik, **kanpo proiektzioa**: horixe aipatuz itxiko dut Euskararen Agenda Estrategikoaren eduki nagusien laburpen eskematiko eta azkar hau. Alor honetan, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak aurreikusten dituen lau kanpo esparruetan lan egingo dugu: batetik, euskararen lurraldeetako erakundeekin -Nafarroako Gobernua- rekin eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin- eta tokian tokiko euskara eragileekin elkarlanean; bestetik, euskararenganako ezagutza eta estimazioa handitzeko Estatuko administrazioak bere eginkizunak bete ditzan saiaturako gara; hirugarrenik, nazioarteko foro, topagune eta sareetan presentzia aktiboa izaten jarraituko dugu; eta, azkenik, garapenerako Euskal Agentziaren bitartez nazioarteko kooperazioaren alorrean kooperazio linguistikoaren kontzeptua landu eta baliatuko dugu.

Kanpo proiektzioaren alor honetan, Lehendakaritza Saileko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABEK eta ETXEPARE Euskal Institutuak elkarlanean jardungo dute, eta ETXEPARE Euskal Institutuak pisu berezia izango du (**guztira 13 ekintza kanpo proiektzioaren arloan**).

Hauxe da eduki nagusien azalpen eskematikoa. Amaitzeko, hasieran adierazitako ideia bat berreskuratu nahi nuke: euskara, bizikidetzarako hizkuntza bizia izan dadin egiten ditugula eta egingo ditugula ahaleginak, gure konpromisotik abiatuta, gainontzeko herri erakundeekin eta askotariko gizarte eragileekin, gogoko baduzue zuekin guztiokin, elkarlanean.

Hizkuntza bizia izateak eskatzen digu, milaka eta milaka euskal herritarrek bihotzean eta gogoan dugun hizkuntza, euskara, bihotzetik eta gogotik ezpainetara eramatea, gero eta ezpain gehiagotara, gero eta gehiago erabiliz ezpainetan. Bihotzetik ezpainetara doana da euskarak egin beharreko bidea, euskal herritarrok egin beharreko bidea. Bide hori da euskarari opa diogun etorkizuna. Horretarako bidelagun izango dugu Euskararen Agenda Estrategikoa.

Mila esker.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016

Bizikidetzarako hizkuntza bizia

O. SARRERA

Legeriak euskal herritar guztiei aitortzen die nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea. Ofizialtasuna eta errealitatea, ordea, ez dira beti bat, euskara eta gaztelania ez baitaude berdintasun egoera sozialean. Egunerokotasunean euskararen hautua egiten duten herritarrek zailtasunak izan ohi dituzte, zenbait esparru, egoera edo unetan euskaraz aritzeko edo bizitzeko.

Beraz, hizkuntzen arteko berdintasuna, herritarrek hizkuntza aukera berdina izatea, hizkuntza bizikidetzari dagokion helburua da. Eta hizkuntza bizikidetzaren zati banaezina da, euskal gizartearen aspaldidanik erakusten ari baita gizarte elebiduna eta, are, eleaniztuna izan nahi duela.

Horregatik, euskara biziberritzea lehentasunezko helburuetan hartua du Eusko Jaurlaritzak, eta zehar-lerro modura kudeatu nahi du elebitasuna, hau da, bi hizkuntza ofizialen trataera eta erabilera. Hala, euskararen normalizaziorako lehendik dituen berariazko baliabide eta organoez gainera, **Euskara Atalak** sortu ditu bere sail guztietan. Izan ere, euskararen erabilera normalizatua eta euskararen sustapena Eusko Jaurlaritzaren sail, organo eta sozietate guztien eginkizuntzat hartzea da bi hizkuntzen arteko berdintasunerantz pausuak ematen jarraitzeko Jaurlaritzak egin lezakeen ekarpenik sendoena.

Hizkuntza normalizazioari Gobernu Programan aitortutako zeharkakotasunaren adierazle da **Euskararen Agenda Estrategiko** hau.

Bertara bildu dira Eusko Jaurlaritzak, **legealdi honetan**, euskara biziberritzearen alde egingo dituen ekintza eta jarduera nagusiak. Horien arteko asko dagoneko abian dira, gauzatzen ari gara. Beste batzuk legealdi honetan jarriko ditugu abian. Horietako hainbat burutu egingo ditugu legealdian; beste hainbatek, berriz, jarraipena izango dute geroko urteetan ere. Beraz, ez dira horiek euskara sustatzeko Jaurlaritzak bere egiten dituen ekimen guztiak, legealdiaren epemugari egokitzen zaizkionak baizik.

Eusko Jaurlaritza osoak, sail guztiek alegia, euskara biziberritzearen landuko dituen ildo estrategikoak, ekimenak eta ekintzak direnez, irismen eta zehaztapen maila desberdinetakoak daude: kasu batzuetan oso ekintza zehatzak dira, eta beste batzuetan formulazio zabalagoa dute.

Euskararen Agenda Estrategikoak, beraz, legealdi honetan gauzatuko ditugun ekimenak eta ekintzak jasotzen ditu, epealdi horretara mugatzen da. Euskararen susta-

penerako **hizkuntza politika sustatzailea eta iraunkorra edo sosteniblea** jasotzen du Agendak. Azken hamarkadetan euskarak izan duen aurrerapena sendotu eta bizkortu nahi du. **Helburu aurreratuak baina egingarriak** jartzen dizkiogu gure buruari: **gizartearen borondatearekin bat** datozenak, adostasun zabaleko planteamenduetan oinarritutakoak. **Hizkuntzen bizikidetz**a ekitatibo eta eroso bat eraikitzea herritar guztien egitekoa izan behar baita, eraikiko bada.

Euskara biziberritzeko daramagun prozesu arrakastatsu hau bizkortu egin nahi dugu eta, horretarako, behar-beharrezkoa dugu berrikuntzaren ezaugarria. **Berrikuntza etengabearen ikuspegia** nahi dugu itsatsi eta orokortu Jaurlearitzaren eta, oro har, herri administrazioen hizkuntza politikan. Eman, ematen eta emango ditugun pausuen gainean etengabeko gogoeta, berrikuspen kritikoa, esperimendazioa eta berrikuntza ahalbidetu nahi ditugu. Berrikuntza proiektuak eta esperimendazio guneak behar ditugulako, gogoeta partekaturako eta ezagutza trukerako joerak lehenetsi behar ditugulako. Bilakaera bizkorrean doan gizarte berriaren ezaugarriei, beharrei eta nahiei gertu-gertutik erantzungo dien hizkuntza politika definituko badugu, ezinbestekoa izango dugu **berrikuntza sistematikoki bultzatzea eta partekatzea**. Hortaz, bultzatuko dugu herri administrazio guztiek, zeinek bere neurrian, **ikerketa, garapena eta berrikuntza beren hizkuntza normalizaziorako jardunaren ezaugarri** eta lanabes bihurtzea; eta bultzatuko dugu, halaber, denok **joera kolaboratzaileaz eta gizarte eragileekiko osagarritasunaren** ikuspegiak jokatzea.

Horregatik, argi eta garbi adierazi nahi dugu bide hau gainerako herri aginteekin eta gizarte eragileekin elkarlanean urratu nahi dugula, hori baita hizkuntzen bizikidetzaren ere gizarte kohesioaren zutoin bihurtzeko bermerik sendoena.

1. AURREKARIAK

Euskararen Agenda Estrategikoa lantzeko eta abiapuntuko diagnostikoa egiteko hainbat dokumentu erabili dira, nagusiki, dokumentuaren amaierako zerrendan aipatzen direnak. Nolanahi ere, zerrendan horretan aipatzen direnez gain, kontuan hartzeko dira, baita ere, alde batetik, euskararen sustapenari buruz Legebiltzarrak eta Jaurlearitzak emanak dituzten lege-araudiak (www.euskadi.net atarian kontsultagai daudenak), eta bestetik Agenda honen osagai diren Erabilera Plan espezifikoetan jaso diren dokumentu zerrenda propioak (plan bakoitzean jasotakoak).

Dokumentazio horretan oinarrituta diagnostikotik abiatuz, “1.000 eguneko programa” izenez gizarteratutako **Eusko Jaurlearitzaren 2012-2016rako Gobernu Programan** jaso-

tako helburuekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak, X. legealdirako hizkuntza politikako lan ildoak finkatzerakoan, aurretik eginiko bi lan eta hausnarketa prozesutan oinarritu da:

- **“Euskara 21. Itun berri baterantz”**. Euskararen Aholku Batzordea, 2009.
- **“Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)”**. Euskararen Aholku Batzordea, 2012.

“Euskara 21. Itun berri baterantz” dokumentua da Euskararen Agenda Estrategikoaren marko nagusia ezartzen duena. Berau da azken urteotan hizkuntza politikari dagokionez egin den gogoeta eta bateratze saio garrantzitsua.

Garrantzi hori azpimarratzeko, bestalde, badugu gertuko beste aurrekari bat: **Iñigo Urkullu lehendakariak** Euskararen Aholku Batzordearen aurrean, 2013ko ekainaren 28an, egindako mintzaldia, non besteak beste hauxe esan zuen: **“Izan ere, Euskara 21 eztabaida prozesutik sorturiko oinarriak, printzipioak, lehen tasun eta lan ildo nagusiak dira garuko Gobernuaren iparrorratza, hizkuntza politikari dagokionez”**.

“Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)”, berriz, Euskararen Aholku Batzordeak egin eta onartu zuen (2012). Ondoren, Eusko Jaurlaritzak berak onartu (2012) eta berretsi zuen (2013); eta, azkenik, Legebiltzarrak ere bere egin zuen, 2013ko irailaren 11n. ESEP plana “Euskara 21. Itun berri baterantz” dokumentuaren ildo, proposamen eta lehen tasunen aplikazio programatikoa osatzeko saioa da, eta euskara biziberritzeari begira Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien, udalen eta askotariko gizarte eragileen egitekoak eta ekarpenak sistematizatzen ditu. 1998an onartua zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena eta eguneratzea da ESEP, eta hainbat ekintza zehatz proposatzen ditu, 2012-2022 urtaldirako, hiru helburu nagusi hauek lortzeko:

- euskararen ezagutza zabaltzea,
- euskararen erabilera handitzea, eta
- euskararen kalitatea hobetzea.

Legealdi honen hasieran onartutako Eusko Jaurlaritzaren 2012-2016rako Gobernu Programak, esan bezala, hizkuntza politikari zeharkakotasuna aitortzen dio eta gobernu-jardunaren ardatzetako bat bihurtzen du, hizkuntzen bizikidetzak gizarte bizikidetzaren zati banaezintzat hartuz. Hauxe da Gobernu Programaren xedeetako bat: **“Hizkuntza politika gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa ezartzeko beharrezkoak diren arazko tresnak eta sailen arteko lanabesak garatzea”** (Programaren 2.3 atala: Konpromisoak euskararen eta hizkuntza bizikidetzarekin; 9. xedea).

Horrenbestez, Euskararen Agenda Estrategikoak, funtsean, ESEP planak berariaz Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eginkizunak jasotzen ditu eta beste hainbat ekintza

berri ere bereganatzen ditu; Agendan jasotzen diren ekintza guztiak 2014-2016 urtaldian abian jartzekoak edo burutzekoak dira. Nabarmentzekoa da, halaber, Euskaren Agenda Estrategikoaren zati eta osagai direla, baita ere, dokumentu hauek: dagoneko onartuta dauden Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia (V. Plangintzaldia), Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana eta EAeko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2009-2017); eta, halaber, 2014an onartzea aurreikusten den Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plangintza.

Beraz, Euskararen Agenda Estrategikoaren osagai izango dira Agendaren testua bera eta eranskin hauek:

- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia (V. plangintzaldia) (2013-2017).
- Osakidetzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2013-2019).
- EAeko Justizia Administrazioan Hizkuntzen Erabilera Normalizatzeko Plan Orokorra (2009-2017).
- EITBko Euskararen Erabilerarako Plana (2013-2016)

Eta, era berean, abian den egitasmo hau, onartu ahala, Agendari erantsiko zaio baita ere:

- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plangintza (lanketan).

2. KUDEAKETA-EREDUA, JARRAIPENA ETA PARTE-HARTZEA

AGENDAREN KUDEAKETA-EREDUA: BATZORDE ERAGILEA ETA JARRAIPEN BATZORDEA

Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategiko hau, beraz, Jaurlaritza osoaren plan estrategikoa da eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila arduratuko da kudeatzeaz.

Agendaren gidaritza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eramango du eta, berak koordinatuko ditu hizkuntzaren normalizaziorako Jaurlaritzaren sail eta organo guztiek izango duten jarduna.

BATZORDE ERAGILEA

Beraz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ardurapean Euskararen Agenda Estrategikoaren Batzorde Eragilea eratuko da, eta Agendaren ildo, ekimen eta ekintza nagusiak abian jartzeko eta kudeatzeko erantzukizuna hartuko du bere gain. Batzorde Eragilea honela osatuko da:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (batzordeburua)

HABE

Etxepare Euskal Institutua

Kultura Sailburuordetza

Hezkuntza Sailburuordetza

IVAPeko Euskara Zuzendariorde

JARRAIPIEN BATZORDE OROKORRA:

Halaber, Euskararen Agenda Estrategikoan jasotako ildo, ekimen eta ekintza guztien ikuspegi orokorra, sail guztietakoa, jasotzeko eta horren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea eratuko da, ondoko kideek osatua:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (batzordeburua)

HABE

Etxepare Euskal Institutua

Kultura Sailburuordetza

Hezkuntza Sailburuordetza

IVAPeko Euskara Zuzendariorde

Jaurlaritzaren sailerako Euskara Atalak

Herri Administrazio eta Justizia Saila

Osakidetza

EITB

Ertzaintza

Gainera, berariazko Erabilera Plan bakoitzak (Eusko Jaurlaritzakoa, Osakidetza, Justizia, Ertzaintza) bere Jarraipen Batzorde propioa du, Hizkuntza Politikarako sailburuordetzarekin koordinatua.

AGENDAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA:

Batzorde Eragilea behar denean bilduko da, baina, gutxienez, urte bakoitzaren azken hiru hilabetekoaren hasieran, hurrengo urtean abian jarri eta kudeatu beharreko ekintzak zehazteko.

Jarraipen Batzorde Orokorra, berriz, behar denean bilduko da, baina, gutxienez urtean behin, 2014ko eta 2015eko amaieran, Agendaren tarteko jarraipena egiteko, eta 2016ko amaieran Agendaren betetze mailaren ebaluazioa egiteko.

KUDEAKETA PLANA:

Euskararen Agenda Estrategikoa onartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, Agenda honen **Kudeaketa Plana** egingo da, arloz arloko arduradunak, ekintzak, epeak eta diru-baliabideak jasoz. Halaber, ekintza horiek burutzerakoan eragindako sektoreekiko harremana eta partaidetza sustatuko da. Kudeaketa Plan honetako ekintzak garatzeko egokiak diren jarduketak administratiboak burutuko dira: **diru-laguntza deialdiak, lankidetzak-hitzarmenak, araudiak...**

PARTE-HARTZEA:

Eusko Jaurlaritza oro har, eta Hizkuntza Politikarako sailburuordetza zehazki, ez ezik, gainerako herri erakundeak, Euskararen Aholku Batzordea, HAKOBA eta askotariko gizarte-eragileak izango dira Euskararen Agenda Estrategikoaren garapenean neurri batean edo bestean parte-hartzaile nagusiak.

Euskararen Agenda Estrategikoak eragile instituzional eta sozialen lankidetzak aurreikusten du.

Hala, Euskararen Aholku Batzordeak, hizkuntza politikaren arloan Eusko Jaurlaritzak duen organo aholku-emaile nagusiak, bere baitan ditu euskal erakunde publiko nagusietako ordezkariek eta euskararen esparruko hainbat gizarte-eragile eta aditu. Aholku Batzordearen berezko kide dira Lehendakaria, Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura sailburua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Ogasun eta Finantza Saila, Hezkuntza Sailburuordetza, HABE, EITB, IVAP, Eusko Legebiltzarra, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak, EUDEL eta Euskaltzaindia. Halaber, euskalgintzaren sektore desberdinetako eta euskararen lurralde-eremu desberdinetako 40 aditu dira Aholku Batzordearen kide.

HAKOBA (Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea) hizkuntza politikaren arloan administrazio desberdinek duten jarduna koordinatzeko organo instituzional nagusia da, eta bertako kide dira Eusko Jaurlaritza, EAEko hiru foru aldundiak, hiru hiriburu-erakunde udalak, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteak) eta UEMA (Udalak Euskaldunen Mankomunitatea).

Halaber, ekimenak eta ekintzak garatzerakoan, kasuan-kasuan dagokion eragilearekin harremanean arituko da arlo horren ardura duen organoa.

Euskararen Agenda Estrategikoaren eduki zehatzak azaldu aurretik, oinarrizko erreferentzia eta abiapuntu dituen bi dokumentu nagusien (“Euskara 21. Itun berri bategarantz” eta ESEP) eduki nagusia jasotzen da ondoko bi ataletan.

Hauetako dira bi dokumentu hauen edukiak, laburbilduta:

2.1 Euskara 21. Itun berri bategarantz

Euskara 21 ahalegina definitzeko garaian, akordio eta partaidetza hitzak datoz burura, horietatik baita dokumentu honen ardatz nagusiak. Euskara biziberritzearen ahaleginetan, partaide kopuruaz eta aniztasunez, mende honen hasieran egin den gogoeta eta bategaritze saiorik zabalena eta adierazgarriena da, zalantzarik gabe. Gogoeta aniztun horren ondorio gisa, “Euskara 21. Itun berri bategarantz” txostenak egiten duen ekarpena bereziki azpimarragarria da, eta hori izango da etorkizuneko hizkuntza politikaren gida nagusia.

Hauetako dira, hain zuzen ere, “Euskara 21. Itun berri bategarantz” dokumentuaren oinarri edo zorua ezartzen duten printzipio nagusiak:

◆ Adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarritutako hizkuntza politikaren premia

Izan ere, bi hizkuntza ofizial izateak ez du bermatzen bi hizkuntzen arteko berdintasun-egoera izatea. Gure gizartean aukera berdintasunerantz urrats sendoak egiten jarraitzeko ezinbestekoa da adostasunez jokatzeko: adostasun politiko eta sozial zabal batez jokatzeko. Euskara biziberritzen jarraitzeko, euskara ere gizartean normaltasun osoz erabili ahal izatera iristeko, hizkuntza politika proaktiboa eta eraginkorra gauzatu behar da, eta euskararen aldeko halako politika positiboa eragile politiko eta sozialaren eta, azken batean, herritarren atxikimenduaz bakarrik eraman daiteke aurrera. Hizkuntza politikarekiko herritarren atxikimendu zabalak bermatzen baitu hizkuntza politika hori “iraunkorra” izango dela, Euskadin hiru hamarkada hauetako esperientziak ederki erakutsi digun legez.

◆ Progresibotasuna: atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen printzipioa

Hizkuntza politika ezin da boluntarismoan oinarritu, ezin da nahiaren eta ezinaren arteko muga-lerroan barrena ibili. Hizkuntza politikak, eraginkorra izango bada, gizar-

tearen errealitatea hartu behar du aintzat. Eta gizartearen atxikimendua zutoin hartuta, helburu egingarriak ezarri behar ditu, erori gabe ez gehiegikeria antzuetan, ez gutxiegiakeria arduragabeetan ere. Alegia: aurrerapena ziurtatzen duten eta egingarri diren helburuak behar ditugu.

◆ **Euskara, nazio adskripzioa eta politika: erantzukizun sozialaren talaiatik zaindu beharreko harremanak**

Hizkuntzak era guztietako identitate adskripzioetara zabalik egon behar du, pertsonaren adskripzio askea bermatzen duen identitate sistema bat behar du, euskaldun huts sentitzetik espainiar huts sentitzerainoko adskripzio guztiak naturaltasunez onartzen dituena. Alegia, euskal herritar guztiak, edozein ikusmolde, ideologia, pentsaera nahiz adskripziotakoak direla ere, eroso sentitu behar dira euskararekin.

◆ **Euskara biziberritzea, herritar oren erabakimenaren baitan**

Ezin da irauarazi erdararen eta euskararen munduen artean batzuetan sumatzen den urruntasuna. Euskara herritar guztien ondarea da, eta herritar guztiei dagokie, euskal hiztunei ez ezik erdal elebakarrei ere, hizkuntza politika finkatzea eta adostea. Funtsen, izan ere, jokoan ez dago euskararen auzia: jokoan dagoena, berez, euskal herritarron hizkuntza bizikidetzaren auzia da; eta, azken batean, gizarte bizikidetzarena. Horregatik, inork ez du bere burua baztertu behar eta inor ez dugu baztertu behar langintza honetatik, etorkizunari begira herritarron bizikidetzaren sendotzen ari baikara euskara biziberritzearekin, bi hizkuntza ofizialen egoera berdintasunerantz eramanez aukera berdintasunak irabazten baitu, eta, ondorioz, bizikidetzaren sozialak. Hizkuntza bizikidetzaren, beraz, kohesio sozialaren mesedetan.

◆ **Adostasunez, itun berritu baterantz**

Euskara guztion ondarea denez gero eta elebitasun berdinkideagoa eraikitzea gizarte kohesioaren eta bizikidetzaren elementu giltzarri denez gero, euskara biziberritzearekiko kontzientzia edo kultura kolektiboa sendotu behar dugu gizartean, horren gainean eratu ahal izateko euskararen eta gizarte eleaniztunaren aldeko **itun berritua**. Eta kontzientzia kolektibo hori integratzailea izatea nahi badugu, adostasunean oinarrituta egon beharko du, adostasuna baita edozein politika demokratikoren funtsezko ezaugarri.

Kontsentsua etengabe elikatzekeo jarrerak, berriz, malgutasuna eta aldekotasuna eskatzen ditu, txanpon beraren bi aurpegi balira bezala. Malgutasuna, herritarren gehien-goaren borondatea ez behartzeko, baizik eta errespetatzeko; eta aldekotasuna ere bai, elebitasun berdinkideagoa begiko ez lukeen malgutasuna ez litzatekeelako onarga-

ria izango, hizkuntza bizikidetzaren, bizikidetzaren eta, azken batean, kohesio sozialaren kaltetan arituko litzatekeelako.

Printzipio horien esparruan oin hartuta, “Euskara 21. Itun berri baterantz” dokumentuak **jardun-ildo** nagusi hauek identifikatzen ditu:

A. Lehenetsuneko ildoak XXI. mende hasierako hizkuntza politikarentzat

- 1) Euskararen ezagutza eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
- 2) Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasmune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunetara belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
- 3) Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
- 4) Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerrako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
- 5) Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehenetsua eman.
- 6) Elebitasun pasiboa helduen munduan, eta gutxiengoko helburutzat, areagotzea eta prestigioatzea.
- 7) Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
- 8) Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
- 9) Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
- 10) Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.
- 11) Euskararen erakarmena lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.

- 12) Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
- 13) Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak) euskararen garapenerako baliatzea, sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalizazio eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskaraz informazio eta komunikazio teknologiak baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.
- 14) Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.

2.2 ESEP

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana da Euskararen Agendaren oinarrian dagoen bigarren dokumentua. ESEPeK izaera operatiboa du, eta, azken batean, Euskara 21ean ezarritako ildo eta helburuen garapena lantzen du: *“Plan honek lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatuko ditu, hizkuntza politikako neurriak erabaki eta aplikatuz, euskaraz bizi nahi duten hiritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko”*.

Helburu orokor hori aurrera eramateko hiru helburu estrategiko ezartzen ditu, eta horien inguruan eraikitzen da ondoren azaltzen den egitura osoa. Helburu bakoitzari hainbat esparru lotzen zaizkio:

Euskararen jabekuntza edo ezagutza. Euskararen jabetze prozesu horretan hiru esparru nabarmentzen dira: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza sistema eta helduen euskalduntzea.

Euskararen erabilera. Erabilerari eragiten dioten faktore objektiboak hauexek dira, besteak beste: hiztunen kopurua, gaitasuna eta inguruko sarea. Horiekin batera, ordea, norbanakoaren motibazioa eta borondatea ere –faktore subjektiboak, alegia– erabakigarriak dira hizkuntzaren erabileran. Hortaz, faktore horietan guztietan eragin nahi dugu Agenda honen bidez, ekintza zehatzak gauzatuz esparruotan: administrazioan eta zerbitzuetan, gune geografiko euskaldunenetan, arlo sozioekonomikoan, aisian, kirolean eta abarretan.

Euskararen elikadura. Hizkuntza era egokian erabiltzeko, hiztunak ereduak eta edukiak behar ditu, bere hizkuntza jarduna aberasteko. Sail honetan sartzen diren espa-

rru nagusiak hauek dira: liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Beraz, hauek dira atal bakoitzean lantzen diren esparruak:

Euskararen jabekuntza edo ezagutza

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen erabilera

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozioekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen elikadura

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

3. LORTU NAHI DITUGUN HELBURUAK EDO AURRERAPAUO NEURGARRIAK

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan. Euskal herritar orok du eskubidea euskaraz jakiteko eta edozein esparrutan euskara erabiltzeko. Euskal gizartea etengabe adierazten ari da gizarte elebiduna izan nahi duela, eta, horrenbestez, herri administrazioen egitekoa da herritarrei nahi duten hizkuntza ofizialean aritzeko eta bizitzeko eskubidea bermatzea. Alabaina, gaurko egoera soziolinguistikoan, hizkuntzari dagokionez, aukera berdintasuna ez dago errealitatean bermatua gure gizartean.

Horregatik, elebitasun orekatuago batera iristeko, erakunde publikoen eta, zehazki, euskararen aldeko politika proaktiboa bultzatzen du Eusko Jaurlaritzak, hiru modutara:

- Alde batetik, elebitasuna sustatzeko eta bermatzeko **lege-arauak** landuz, betez eta betearaziz.
- Bestetik, elebitasun orekatu batera eta aukera berdintasunera gerturatzeko **hizkuntza politika** definituz eta sustapen politika hori garatzeko **baliabideak** jarritz.
- Eta, azkenik, elebitasunaren balioen, euskararen eta euskara-erabileraren aldeko **konpromisoa**, **sentsibilizazioa** eta **eredugarritasuna** landuz.

Beraz, maila eta eremu guztietako herri aginte orok du eginkizun erabakigarria euskara iraunarazteko eta biziberritzeko zereginetan. Baina hizkuntza politika eraginkorra izango bada, ezinbestekoa izango du **gizartearen onespena eta atxikimendua** bereganatzea. Horregatik, Euskararen Agenda Estrategiko honen eta, oro har, hizkuntza politikaren ildo eta esparru guztietan, administrazioaren eta gizartearen arteko elkarlana bilatu eta sustatuko du etengabe Eusko Jaurlaritzak, **euskalgintza instituzionalaren eta euskalgintza sozialaren** arteko sinergiak sendotzeko eta indarrak bateratzeko.

Azken batean, Eusko Jaurlaritzak **hizkuntza politika iraunkorra** bultzatzeko konpromisoa berresten du dokumentu honekin: euskara biziberritzen jarraitzea eta elebitasun orekatuago batera hurbilaraztea bermatzen duen politika, baina, aldi berean, egingarria den politika, gizartearen borondatean eta adostasunean oinarrituta dagoelako eta unean uneko errealitate soziolinguistikoa aintzat hartzen duelako.

Beraz, Euskararen Agenda Estrategiko honen helburua da euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan aurrerapenak eragiten jarraitzea eta **aurrerapauso neurgarriak** ematea honako hauetan:

- Euskal biztanleriaren euskara-gaitasun orokorrean
- Euskal biztanleria elebakarraren euskarazko oinarrizko ezagutzan
- Euskal herritarren euskararen erabileran
- Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskarak lan-hizkuntza gisa duen erabileran
- Euskal biztanleriaren euskararekiko atxikimenduan
- Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskara zerbitzu hizkuntza gisa orokortzera bidean
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan euskararen presentzia sendotzera bidean
- Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien eta organoen jardun publikoan euskarak duen erabilera mailan
- Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako herri aginteen arteko harremanetan euskarak duen erabilera mailan
- Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan
- Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasunean
- Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien euskararekiko atxikimenduan
- Merkataritza gune handietan eta zerbitzu unibertsalak (ura, elektrizitate, gas hornitzaileak eta beste) ematen dituzten enpresa handietan kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak duten betetze mailan
- Merkataritza eta ostalaritza orokorraren arloko euskararen erabileran
- Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskarak dituen baliabideetan eta erabileran

Besteak beste Euskararen Agenda Estrategikoaren eskutik erdietsitako helburuak neurtzeko kontuan hartuko dira Euskararen Inkesta Soziolinguistikokoaren eta Mapa Soziolinguistikokoaren (2016) adierazleak eta, halaber, erabilera plan espezifiko bakoitzean jasotako adierazleak, zehazki hauek:

Euskararen Agenda Estrategikoaren ebaluazio adierazleak:

HELBURUA, AURRERAPAUSO NEURGARRIAK ERAGITEA ESPARRU HAUETAN	ADIERAZLEA
Euskal biztanleriaren euskara-gaitasun orokorrean	1.1. Hizkuntza-gaitasuna, lurraldearen arabera. EAE (%) 1.2. Euskaldunen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE (%) 1.3. Euskaldunen bilakaera, adinaren arabera. EAE (%)
Euskal biztanleria elebakarraren euskarazko oinarritzko ezagutzan	2.1. Elebidun hartzaileen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE (%) 2.2. Partzialki euskaldun berrien bilakaera, lurraldearen arabera. EAE (%) 2.3. A1 eta A2 ziurtagiriak eskuratzen dituzten kopurua
Euskal herritarren euskararen erabileran	3.1. Euskararen erabileraren bilakaera. EAE (%) 3.2. Euskararen erabilera adinaren arabera. EAE (%) 3.3. Euskararen erabileraren bilakaera etxean. EAE (%) 3.4. Euskararen erabileraren bilakaera eremu hurbilean. EAE (%) 3.5. Euskararen erabileraren bilakaera eremu formalean. EAE (%)
Euskal biztanleriaren euskararekiko atxikimenduan	4.1. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE (%) 4.2. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera, hizkuntza-gaitasunaren arabera. EAE (%) 4.3. Euskarari buruzko interesaren bilakaera. EAE (%)
Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskarak lan-hizkuntza gisa duen erabileran	5.1. Euskaraz sortzen den dokumentazioaren indizea 5.2. Lan bileretako euskararen erabileraren indizea
Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskara zerbitzu hizkuntza gisa orokortzera bidean	6.1. Euskararen erabileraren bilakaera arretako eta jende aurreko zerbitzuetan 6.2. ELEBIDEN jasotako kexa kopurua
Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan euskararen presentzia sendotzera bidean	7.1. Sozietate publikoetako erabilera-planen bilakaera. Eusko Jaurlaritza 7.2. Sozietate publikoetako idatzizko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera. Eusko Jaurlaritza 7.3. Sozietate publikoetako ahozko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera. Eusko Jaurlaritza
Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien eta organoen jardun publikoan euskarak duen erabilera mailan	8.1. Euskararen erabileraren ehunekoa denbora eta gaiaren arabera: Legebiltzarrean, hedabideen aurrean, bestelako ekitaldietan
Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako herri aginteen arteko harremanetan euskarak duen erabilera mailan	9.1. Administrazioen arteko harremanetako euskararen erabileraren bilakaera
Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan	10.1. Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen aplikazioaren betetze maila

Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasunean	11.1. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza-eskakizunen betetze maila 11.2. Eusko Jaurlaritzako erakunde-ordezkarien hizkuntza-gaitasuna
Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien euskararekiko atxikimenduan	12.1. Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa Jaurlaritzako erabilera-planarekiko 12.2. Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien asistentzia eta parte-hartze aktiboa Jaurlaritzako erabilera-planeko ekimenetan
Merkataritza gune handietan eta zerbitzu unibertsalak (ura, elektrizitate, gas hornitzaileak eta beste) ematen dituzten enpresa handietan kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak duten betetze mailan	13.1. Ahozko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera jarduera sektorearen arabera. EAE (%) 13.2. Idatzizko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera jarduera sektorearen arabera. EAE (%) 13.3. Bezeroaren arreta zerbitzuaren hizkuntzaren bilakaera jarduera sektorearen arabera. EAE (%)
Merkataritza eta ostalaritza orokorraren arloko euskararen erabileran	14.1. 123/2008 Dekretuak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, eta berau aldatzen duen 204/2010 Dekretuak, ezarritako araudiaren betetze maila, betetzen duten enpresa kopuruaren arabera.
Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskarak dituen baliabideetan eta erabileran	15.1. Euskararen Interneteko posizioa 15.2. Euskararen twitter-eko posizioa 15.3. Euskarazko itzultzaile automatikoaren hizkuntza-pareen kopurua eta erabiltzaile kopurua 15.4. Euskarazko nabigatzaileen erabiltzaile kopurua 15.5. Agerkari digitalen kopurua 15.6. Wikipediako euskarazko sarrera kopurua

Oharra: Adierazle horietako hainbat, normala denez, Mapa Soziolinguistikoaren eta Inkesta Soziolinguistikoaren emaitza eta datuekin elikatuko dira batez ere.

Bilakaera soziolinguistikoan aldaketa esanguratsuak sortzeko denbora tarte nabarmena behar izaten den arren, azken hogeita hamar urteotan euskararen bilakaerak izan duen joera positiboa berritzea eta sendotzea bilatuko da Agendarekin 2013-2016 epealdian, arestian aipatu diren adierazleetan hazkundera eraginez.

Agendaren edukiak kudeatzeari dagokionez, 13 lan-ildo definitzen dira Euskararen Agenda Estrategikoan, non 34 ekimen eta 168 ekintza jasotzen baitira.

Agendaren betetze mailari dagokionez, 168 ekintza horiek epe hauetan abian jarrita egotea aurreikusten da:

- % 60 2014ko amaierarako
- % 75 2015eko amaierarako
- >% 90 2016ko amaierarako

3.1 Ezagutza eta erabilera


Hizkuntza jakitea da erabileraren ezinbesteko baldintza, jakite hutsak bermatzen ez duen arren hizkuntzaren erabilera. Beraz, bi esparru horiek ondorengo belaunaldietan indartzea izango dugu helburu zehatz. Ondoko grafikoek erakusten duten moduan, ez da hau hutsetik hasi beharreko lana, ezta gutxiago ere. Azken hiru hamarkadetan aurrerapen handia egin du euskarak, bai ezagutzari dagokionez, bai eta erabilerari dagokionez ere, nahiz eta erabileran, ulergarria den eran, neurri apalagoan egin duen aurrera. Euskararen ezagutzari dagokionez, **euskal hezkuntza sistemak eta helduen euskalduntze sistemak egindako ekarpenari esker ehunka mila hiztun irabazi ditu euskarak**. Gainera, adinari begira, **belaunaldi gazteenak dira gaur egun elebidunenak** (beraz, euskaldunenak). Duela hogeita hamar urte populazio zaharrena zen euskaldunena, baina, egun, populazio gazteena da elebidunena. Euskal Autonomia Erkidegoan, 16-24 urte bitarteko gazteetan, bi heren dira elebidunak. Eta hamasei urtetik beharagoetan joera hori areagotu egiten da nabarmen. Erabilera eta ezagutza mailarik altuena duten taldeak gazteenak izatea pozgarria da, eta erakusten du euskara biziberritzeko prozesua norabide onean doala. Dena dela, honek ez digu lasaitzeko arrazoirik ematen, oraindik ere irabazteko guneak badaude eta. Hurrengo urteak giltzarri izango dira joera hau finkatzeari begira, eta, beraz, Agenda honen helburuen artean garrantzi berezia hartuko dute euskararen ezagutza etengabe handitzeak eta erabilera ahal den maila normalizatuenera eramateak, hizkuntza aukeren berdintasuna errealitate bihurtzeko.

Ondoko grafikoetan (1. eta 2. grafikoak) agertzen da zer bilakaera izan duen euskarak ezagutzan eta erabileran. Ezagutzari dagokionez, euskara dakitenen kopurua etengabe ari da hazten. EAEn 16 urtetik gorako biztanleen % 32 elebiduna da, eta % 17,2 elebidun hartzailea. 600.000 elebidun daude gaur egun, 1991n baino 180.000 gehiago. Halaber, EAEn gero eta gehiago dira euskara erabiltzen duten pertsonak. Biztanleen % 20k euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen du, eta beste % 8,9k ere erabiltzen du euskara, nahiz eta gaztelania baino gutxiago.


Hirugarren eta laugarren grafikoetan, berriz, ageri da elebidunak zenbat diren adinaren arabera eta zenbat diren euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dutenak.

Hala, hirugarrenean, hain zuzen ere, hiru datu mota ematen dira: adin talde bakoitzean dagoen elebidunen kopuru absolutua, adin talde bakoitzean dagoen elebidunen ehunekoa (%), eta adin talde bakoitzeko populazio osoaren barruan zenbat diren euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen dutenak (%).

Laugarrenean, azkenik, adierazten da adin talde bakoitzean dauden elebidunen portzentajea (%) eta, adin talde bakoitzeko elebidunen artean, zenbat diren euskara gaz-

1. grafikoa.- Euskaldunen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)


Iturria: Biztanleriaren eta Etxebitzen zentsuak.

2. grafikoa.- Euskararen erabilera: euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. EAE, 1991-2011 (%)

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

telania adina edo gehiago erabiltzen dutenak (%); beraz, elebidun guztiek euskaraz gaztelaniaz adina edo gehiago egingo balute, erlazioaren balioa 1 izango litzateke. Paradoxikoa da: gizarte osoa kontuan hartzen badugu, adin talde gazteenetan gertatzen da euskararen erabilera indizirik altuena (euskara ezagutzaren hazkundea batez ere adin talde gazteenetan ari delako gertatzen); baina, hona paradoxa: populazio ele-

3.- grafikoa. Populazio osoa: gaitasunaren eta erabileraren arteko erlazioa, kopurua kontuan izanda. 2011.




bidunaren barruan, hain zuzen, adin talde gazteenetan gertatzen da erabilera indize baxuena. Honek erakusten digu gazteen artean hobekuntza tarte nabarmena dugula erabilerari dagokionez.

Ezagerari dagokionez, irakaskuntza sistemaren garrantzia aipatzea ezinbestekoa da. Euskadi hezkuntza sistema propioa garatzen hasi zenetik beretik, urterik urte, euskal gizarteak argi eta garbi egin du **hezkuntza sistema elebidunaren** alde. Eta, etorkizunari begira, argi adierazten ari da gizarte elebiduna ez ezik **gizarte eleaniztuna** izan nahi duela XXI. mendean. Beraz, euskal eskolak herritar eleaniztunak sortu behar ditu.

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna aintzat hartuta, inguruneak eta interakzio sozialak gaztelaniaren erabilera errazten duela gogoan hartuta eta, egin diren ebaluazioen argitan, halako ingurune horretan behar besteko euskarazko gaitasun komunikatiboa eskuratzeko irakas-ikasprozesuan euskara erabiltzea funtsezkoa dela frogatua dagoela kontuan hartuta, hezkuntza marko eleaniztun horrek euskara izango du ardatz, hain zuzen ere bi hizkuntza ofizialen artean gaur egun dagoen desoreka gainditzearren eta hizkuntzen berdintasun soziala eta ikasleentzako aukera-berdintasuna sustatzearen. Horregatik, era berean, hezkuntza sistemak ziurtatu egingo du euskararen erabilera, ohizkoa eta normalizatua, eskola barruko eta kanpoko jardueretan eta, oro har, eskolaren jardunean.

4.- grafikoa. Populazio elebiduna: gaitasunaren eta erabileraren arteko erlazioa, adin taldea kontuan izanda



Beraz, hizkuntza-irakasteredu guztietan euskararen jabekuntzaren emaitzak hobetzeko, ikasmaterialak eta metodologiak hobetuko dira, irakasleen hizkuntza gaitasuna sendotzen jarraituko dugu, eta A eredia duten ikastetxeetan, euskara irakas-hizkuntza ere, gaur baino neurri zabalagoan, izatea bultzatuko dugu. Halaber, Batxilerrean eta Lanbide Heziketan B eredia era progresiboan sartuko dugu, derrigorrezko eskolalditik datozen ikasleentzako eskaintzak jarraipen koherenteagoa izan dezan; eta gradu zein graduondoko ikasketetan ere euskarazko eskaintza areagotzen saiatuko gara. Era berean, euskara eskolako harreman hizkuntza normalizatua izatea sustatuko da ikastetxe proiektuetan.

Azken batean, **euskara ardatz duen eskola eleaniztunaren bitartez**, helburua izango da ikasleek, bizitzaren arlo desberdinetan, **bi hizkuntza ofizialak, ahoz eta idatziz, era egokian eta eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna** eskuratzea.

Bestalde, etxean edo eskolan euskara jaso ez duten herritar helduei nahiz etorkinei euskara ikasteko aukera eta bitarteko eraginkorrak eskaini behar zaizkie, helduen euskalduntze sarearen bitartez. Hezkuntza sistemarekin batera, **Helduen euskalduntzea** euskararen ezagutza indartzeko oinarri sendoa izan da, dagoeneko ehun mila hiztun inguru eman baitizkio euskarari. Beraz, euskaltegien sareak betetzen duen eginkizuna sendotzeko, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berritua onartuko

du HABEK, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren sei mailak jasoz. HEOC berriaren bitartez, gainera, helduen euskara irakaskuntza Europako Erreferentzia Marko Bateria guztiz egokitzearekin batera, Europako Marko Bateria bera euskararen egoera soziolinguistikora egokitzeko bideak urratuko ditugu, euskararen ikaskuntzaren ikuspegi komunikatiboan gehiago sakonduz.

Erabilerari dagokionez, berriz, bizia eta zabala izatea lortzeko bideak jarri behar ditugu, betiere euskara harreman esparru bizietan murgilaraziz. Esparru horien artean aisialdia, kirola, kultura eta bereziki gazte munduko komunikazioa izan behar dira kontuan, baina arlo sozioekonomikoa eta hedabideak aiantzi gabe.

Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera indartzeak hizkuntzaren ikuspegi ludikoa sendotzen lagunduko luke, batzuetan izan ohi duen kutsu akademiko hutsa gaintuz eta erakargarriagoa eginez; prestigioa ere irabaziko luke gainera esparru aniztasunari esker. Zentzun honetan, **begirale eta entrenatzaile euskaldunak** izatea ezinbestekoa da, eta, beraz, horretarako bide ezberdinak jorratuko ditugu (prestakuntza, materiala, diru-laguntzetako hizkuntza irizpideak...); bestalde, **batez ere gazteei zuzenduriko produktu eta ekimenetan, euskarazkoen eskaintza lehenetsi edo sustatuko dugu**, berrikuntza propioak asmatuz edota modako gauzak ahalik eta azkarren lokalizatuz.

Esan dugun moduan, **arlo sozioekonomikoa** ere euskararen erabilera sustatzeko esparru garrantzitsua da. Izan ere, euskararen erabilerari bultzada bat eman nahi badiogu, euskarak enpresa-munduan presentzia handiagoa lortu behar du, hizkuntza erabilgarria dela ikusarazi behar da, lan-hizkuntza izan daitekeela frogatu. Horretarako, datozen urteetan enpresetako Erabilera Planak sustatzen jarraituko dugu, gainerako herri-administrazioekin elkarlanean, EBPN eta ESEP planen garapenaren baitan. Era berean, arlo sozioekonomikoko eragile nagusiekin (enpresari elkarte, langileen sindikatu eta abarrekin) enpresa munduan euskarak presentzia eta erabilera handitzeko bideak landuko ditugu: akordioak, hizkuntza-irizpideak... Orobat, merkataritzaren arloan herritarren hizkuntza eskubideak gauzatzeko araudia egokitzen eta garatzen jarraituko dugu.

Hedabideek osatzen dute erabilera sendotzeko landuko dugun beste alorra. Euskarazko hedabideen sektore sendo bat izatea giltzarria da euskaren erabilera bultzatzeko eta hizkuntzari berari prestigioa emateko, hau da, euskarazko kontsumoa sustatzeko nahiz sentsibilizazio eta motibazioa eragiteko. Gaur egun, ordea, unitate txiki askoz osaturiko multzoa dela esan genezake, nahiz eta egituratzeko lanetan gogoz diharduen. Horregatik, sektorea indartu, egituratu eta sustatzeko politikari jarraipena emango diogu, eta irakurleen eta ikus-entzuleen gogo-apetak asetzeko ahaleginak sustatuko ditugu. Horretarako, euskarazko hedabideak finantzatzeko laguntzak eta euskararen erabilera gainerako hedabideetan ere sustatzeko laguntzak emango ditugu. Halaber, ikus-entzunezkoen arloko komunikazioa lantzeko berariaz sortua

den EITB ente publikoaren gidaritzapean euskarazko ikus-entzunezkoen kalitatezko eskaintza osatzen jarraituko dugu.

3.1.- EUSKARAREN GAITASUNA ETA ERABILERA

Gizarte elebiduna sustatzea eta, eguneroko bizitzan txertatuz, euskara gaurko eta etorkizuneko hizkuntza izan dadin bermatzea, era progresiboan eta orekatuan, egun bere ez dituen esparruetara eta pertsonengana zabalduz eta haiek euskarara erakarrit.

1. Herritarren artean euskal hiztunen kopurua handitzen jarraitzea, hezkuntza sistemaren, helduen euskalduntze sistemaren eta familia transmisioaren bitartez.
2. Euskararen gizarte erabileran aurreratzen jarraitzea, esparru formaletan eta, batez ere, ez formaletan.

3.1.1.- Gaitasunaren arloan:

- Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztun batean ikasleek, ahoz eta idatziz, bizitzaren alor desberdinetan, bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna bermatzea.
- Euskararen ezagutza bizitza osorako ikaskuntzaren markoan txertatzea.
- Eskola materialak, IKT baliabideak eta testuliburuaren hizkuntzaren kalitatea zaintzea.
- Irakasleen euskararen ezagutza maila eta euskarazko kompetentzia komunikatiboak hobetzeko hasierako eta etengabeko prestakuntza eskaintzea IRALeren bitartez.
- Euskara (eta beste hizkuntzetako) irakasleak trebatzea hizkuntzen didaktikan egindako azken bilakaeretan, bai hasierako prestakuntzan bai eta etengabekoan ere.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza orokorra euskaraz egiteko eskaintza bermatzea "Prest Gara" programaren bitartez.
- Ikasleen hizkuntza egoeratik abiatuak, hau da kontuan izanik gehiengo bat 2. edo 3. hizkuntzan ari dela beste arloetako ezaguerak jasotzen, didaktikak eta ikuspegiak egokitzea.
- Unibertsitateaz aurretiko irakaskuntzaren ibilbidean, gutxienez bi unetan ikasleen hizkuntza gaitasuna neurtuko duen sistema garatzea.
- Lanbide heziketan euskarazko eskaintza zabaltzea, bai euskarazko lerroa indartzuz, bai eta B eredia abiarazteko plangintza eginez.

- Graduako ikasketetan, hautazko eta derrigorrezko irakasgaiak euskaraz egiteko aukera zabaltzea, betiere eskaintzaren bikoiztasunak saihestuz.
- Graduondoko eskaintzetan euskararen presentzia ziurtatzea.
- Unibertsitatean euskarazko ikasketak indartzea, irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz.
- Batxilergoan euskarazko eskaintza zabaltzea, bai euskarazko lerroa indartuz, bai eta B ereduaren abiarazteko plangintza eginez.
- Helduen euskalduntzearen sarea sendotuz, herritar elebidunen kopurua handitzeko eta oinarrizko euskararen ezagutza ahalik eta gehien orokortzeko bidea egitea.
- Helduen euskalduntzearen arloko ikasprozesua azkartzeko neurriak hartzea.
- HABE, LANBIDE, udal, udal euskaltegi, euskaltegi pribatu homologatu, Hizkuntza Eskola Ofizial, IRALE, IVAP eta esparruko gainerako agente publiko eta pribatuen arteko osagarritasuna aztertu eta sendotzea.
- Finantzaketa egonkorrekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea.
- Barnetegien berezitasuna kontuan harturik, finantzaketa sistema egoki bat eratzea.
- Helduen euskalduntze sarean HEOCa berritzea, gaitasun helburu mailakatu zehatzagoak ezartzeko, eta ikasprozesuak azkartzeko eta hobetzeko.
- Helduen euskalduntze sarean ikasmaterial, bitarteko eta antolamendu aurreratuak bultzatzea, hobekuntza etengabea sustatzeko.
- Helduen euskalduntzeko euskaltegien sare-egiturak sendotzea, gizartearen beharrei ahalik eta ondoen erantzun ahal izateko.
- Euskara egiaztatze sistema duten erakunde eta organoen arteko elkarlana estutzea, deialdiak eta prozesuak koordinatzeko eta sistema bateratura urratsak egiteko.
- Euskaltegien sarean oinarrizko A1 eta A2 mailak ere ezartzea eta egiaztatzea, eta ikasleen diru-laguntzetarako kontuan hartzea.
- Egungo euskalduntze curriculumak Europako Erreferentzia Marko Bateratuta egokitzea, eta Markoa Bateratua bera euskarara egokitzea.
- Azterketen sistema eta ereduak hobetzeko gogoeta bideratu eta ondorioak aplikatzea.
- Euskara irakasle-tutoreen berariazko formazioa behar eta metodologia berrietara egokitu eta hedatzea.

- Helduak euskalduntzeko alorreko materialak, metodoak eta baliabideak etengabe eguneratzea.
- Bizialdi osoko ikaskuntzaren lege-esparruan, euskara ikasteko ikastaroak diseinatu eta eskaintzea.

3.1.2.- Erabileraren arloan:

- Euskararen erabilera sozialerako aukerak areagotzea, lehentasuna jarriz aisialdi esparruko jardueretan.
- Gazteen harreman eta komunikazio esparruetan (kulturan, musikan, kirolean...) eta bitartekoetan (IKTetan, sarean...) euskararen presentzia handitu dadin sustatzea.
- Lan munduan euskararen erabilera sustatzea.
- Euskarazko hedabideak sustatzea eta hedabide guztietan euskararen erabilera bultzatzea.
- Eskolaratze garaian lehen hizkuntza euskara duten talde eta guneetan eredu didaktiko eta metodologikoak egokitzea.
- Euskara hezkuntzaren ingurune ele anitzekoan erabiltzeko estrategiak definitu eta praktikara eramatea.
- Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera plangintza egitea, hau da, hizkuntza proiektua egitea.
- Hezkuntza esparruaren eta gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea.
- Hezkuntza esparruaren eta lan-munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzak proiektuak bultzatuz.
- Euskarabidearekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzak sustatzea, euskararen lurraldeen arteko elkarlana bermatzeko.
- Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea.
- Enpreetan euskararen erabilera planen ezarpena bultzatzea, LanHitz egitasmoa garatuz.
- Enpresen euskara planetara bideratzen diren diru-laguntzen inguruko herri-aginteen koordinazioa indartu eta hobetzea.
- Arlo sozioekonomikoarentzako diru-laguntza lerroetan hizkuntza irizpideak txertatzea.
- Lan eta enpresa munduko eragileen arteko elkarlana sustatzea.

- Ekintzaileei zuzendutako diru-laguntzetan eta programetan hizkuntza irizpideak txertatzea.
- Lanbide heziketako eta unibertsitateko ikasleek lan-mundura hurbiltzean egin ohi dituzten praktikak euskaraz ere egiteko aukera izan dezaten bultzatzea.
- Bizialdi osoko ikaskuntzaren lege-esparruan langabetuentzat eskainiko den prestakuntza euskaraz ere jasotzeko aukera bermatzea.
- Begiraleen eskoletan euskarazko adarra bermatzea, eta arlo horretan eskarmentua dutenekin euskara integratzeko lagungarri izan daitezkeen ekimen berritzaileak adostu eta lantzea.
- Aisialdiko begiraleen kontratazioan eta aisialdiko ekimenetara bideratzen diren diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak txertatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jardunean euskararen erabilera normalizatzeko plangintza bultzatzea.
- Kirol eta jarduera fisikoaren alorretan euskarazko materialaren sorkuntza eta hedapena sustatzea.
- Kirol entrenatzaileak euskaraz trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez-ofizialak euskaraz lortzeko ikastaroak sustatzea.
- Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan.
- Haur eta gazteei begirako produktuen euskarri berriak sustatzea.
- Hedabideen arloan etorkizuna aurreikusteko eta gertuko eta mundu zabalera esperientziak ezagutarazteko jarduerak bideratzea eta bidean dauden esperientziak baliatzea.
- Hedabideetako euskarazko edukien audientzia-azterketa kualitatiboa egitea.
- Ikus-entzunezko euskarazko hedabideei buruzko ikerketa kualitatiboa egitea.
- Ikus-entzunezkoen eskaintza globala osatzeko urratsak egiten jarraitzea.
- Euskal hedabideen sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea.
- Garapen teknologikoarekin batera herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzen dituzten komunikazio proiektu globalak edo multimedia sustatzea.
- Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira.
- Ikus-entzunezko eta paperezko hedabideetan zein komunikabide digitaletan euskararen presentzia gehitzeko neurriak abian jartzea.

3.2 Arnasguneak

Egoera soziolinguistiko eta psikolinguistiko berezia duten esparruak dira, eta esparru funtzionalak nahiz geografikoak izan daitezke.

Esaterako, hein handi batean eskola da euskararen arnasmune funtzionaletako bat. Hainbat kasutan, baita eliza, haurrentzako udalekuak eta abar. Arnasmune funtzionaletan eragiteko ekintzak atalez atal jasota daude agendan, jarduera esparru bakoitzari dagokion lekuan.

Arnasmune geografikoek, berriz, ezaugarri dute bertan bizi edo ari diren herritarren zati esanguratsuen euskalduna dela, eta pertsonen eta erakundeen arteko harremanak nagusiki euskaraz izaten direla. Horregatik, esparru horietan euskararen erabilera funtzionala eta naturala bultzatu eta sendotuko dugu, hein handi batean euskaraz bizitzeko aukera bermatzen duten guneak direlako eta, gainerako esparruei begira, hizkuntzaren beraren garapenean eredugarritasun handiko esparruak direlako. Beraz, babestu eta sustatu beharreko guneak dira, besteak beste bertako biztanleen hizkuntza eskubideak eta aukerak ez oztopatzeko, baizik eta ziurtatu eta sustatzeko.

Arlo honetan, lan egiteko lehenengo pausoa arnasmuneak definitzeko eta ezartzeko irizpideak lantzea izango da. Halaber, arnasmune horietako bakoitzean bizitzaren esparru edo alor ezberdinetan euskara zenbat eta nola erabiltzen den aztertuko dugu, praktika onak heda daitezkeen ikusiz eta indartu beharreko ataletan nola eragin aztertuz. Horretarako, gune horietako herri administrazioen eginkizuna oso garrantzitsua izango da, eta, beraz, modu espezifikoan aztertu eta landuko dugu haiekiko elkarlana.

3.2.- ARNASGUNE GEOGRAFIKOAK

Euskara ohiko hizkuntza den esparru geografikoak: euskararen aberastasunean, bizitasunean eta komunikazio ahalmenean duten eredugarritasuna ziurtatzea eta sendotzea, eta gainerako guneetara eramaten saiatzea.

1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara udalerriko gizarte bizitza eta herritarren arteko harremanetarako ohiko hizkuntza funtzionala izan dadin ekimenak sustatzea.

- Herri horietan administrazioak euskaraz normaltasunez funtziona dezan bultzatzea, betiere herritar guztien hizkuntza eskubiderik urratu gabe.
- Herri horietan, herritar euskaldunek administrazioarekiko harremanetan euskara era naturalean erabil dezaten ekintzak sustatzea.
- Herri horietan euskararen erabilera planak diseinatu eta garatzeko laguntza ematea.
- Herri horietan gizarte izaerako zerbitzuek (osasun, mendekotasun, hezkuntza... zerbitzuek) euskaraz normaltasunez funtziona dezaten sustatzea, betiere herritar guztien hizkuntza eskubideak urratu gabe.
- Herri horietan merkataritzan eta lan munduan euskara era naturalean erabil dadin ekintzak sustatzea.

3.3 Familiak


Agenda honetan badago oinarritzko ideia bat: familiek euskararen transmisioan eta erabileran duten garrantzia. Hori dela eta, lan berezia egingo da, euskarari dagokionez, familia transmisioan galerak eteteko eta irabaziak bizkortzeko, familia giroan lortutako ohiturek duten iraunkortasuna guztiz erabakigarria da eta.

Oso garrantzitsua da guraso berri guztiak jabetzea beren euskararekiko jarrerak eta erabilerak umeen hizkuntzaren jabekuntzan eta ohituretan duten eraginaz. Ildo honetan, datozen urte hauetan berariazko ahalegina egingo dugu **fokua bikote mistoetan jartzen**. Izan ere, V. Inkesta Soziolinguistikoko datuek erakusten digute, azken urteotan, euskara familia bidez jaso duten haurren kopurua (gaztelaniarekin batera bada ere) nagusiki multzo honi esker hazi dela.

Zentzu honetan, oso lagungarria izango da familia horietako kideen artean euskarak etxeko hizkuntza legez presentzia handiagoa izan dezan sustatzea (guraso euskalduna haurrekin euskaraz mintzatuz, eta erdaldunak, ahal duen neurrian, elebidun hartzailearen eginkizuna hartuz, bi gurasoen aldetik haurrek euskararenganako atxikimendua jaso), elkarrekin erabili/gozatu ditzaketen euskarazko **kultura produktuen kontsumoa** erraztea, **eleaniztasunaren onurak** azaltzea, **hizkuntza ohituren garrantzia** azpimarratzea (haurrek euskara helduen hizkuntza gisa ere identifika dezatela ahalbidetzeko, euskara mundu akademikoarekin soilik lotzeko joera gainditzeko) eta abar.

Arlo honetan funtsezkoa izango da sentsibilizazio lana, bakoitzak berea duen esparruan modu positiboan eragin dezan eta familia giroa ahalik eta euskaldunena izan dadin.

5. grafikoa. Seme-alabei transmititutako hizkuntza, gurasoen ezagutzaren arabera. EAE, 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Egokituta.

Bestalde, kontuan harturik **eskola** dela **guraso eta umeak** euskararekin lotzen dituen gune sozial sendoenetako bat, sendoena ez bada, interesgarria da **konexio natural** honetaz baliatzea, betiere eskolekiko lankidetzarako aukera beraiekin alde aurretik kontrastatu eta hitzartuz. Hala, arestian aipatu ditugun helburuak lortzera bideraturiko sentsibilizazio kanpainak diseinatzea eta implementatzea bultzatuko du Jaurlaritzak, eskola eragile sistematikoa izan dadin, bereziki guraso-eskolen bitartez, hizkuntzaren familia-transmisioaren gaiaz jabearazteko.

3.3.- FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Euskara ahalik eta modurik naturalenean jaso eta erabili dadin familia bidezko transmisioak duen garrantzia ezagutaraztea –batez ere bikote mistoei–, eta laguntza eta baliabideak eskaintzea hartara motibatuzko.


1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.
2. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.
3. Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutu eta orain arte burututako ekimenen arrakasta neurtzeko.
4. Guraso euskaldun berriek euskararen familia bidezko transmisioa berma dezaten sentsibilizazio lana egitea.

- Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea.
- Eleaniztasunaren onurak azaltzea.
- Euskararen erabilerarako dauden sozializazio guneak baliatzea eta berriak sortzea.
- Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.
- Gurasoek euren hizkuntza ohiturek seme-alaben hizkuntza portaeran duten eraginaz ohartaraztea eta seme-alabekiko jokabidea lantzea, bikote euskaldun nahiz mistoetan.
- Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea.
- Familia, eskola eta ingurunearen arteko interakzioa sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.
- Haur zaintzan diharduten erdaldunekin euren eginkizunetarako oinarrizko hizkuntza gaitasuna lortzeko baliabideak sustatzea.

3.4 Hiri handietako euskararen erabilera

XXI. mendea hirien mendea izango omen da. Horren oinarrian dago adituen iritziz sendoa: hiria izango da jarduera, sormen, harreman eta, finean, giza ekintza asko eta askoren ardatza. Honen inguruan hainbat eta hainbat mugimendu sortzen ari dira, eta euskara ezin da inola ere horretatik at geratu. Are gehiago, korrante horren indarraz baliatu eta modernitatean erabat murgiltzea lortu behar dugu. Beraz, hiriak garapen esparru garrantzitsuak izango dira, eta euskarak beraietan izango duen presentzia erabakigarria izan daiteke.

Hori dela eta, ezinbestekoa da azken urteotako garapenarekin jarraitzea; izan ere, egindako neurketek garbi adierazten dute hiria dela euskararen gaur egungo ingurune hedatuena. Joan zen mendearen erdialdea arte indarrean zegoen ustea –euskara landa eremuko hizkuntza zela eta etxeko kontuetarako soilik balio zuela– gairik dago eta beste errealitate bati eman dio bide: gaur egun euskararen erabilerak badu lekurik gure hiri nagusietan. Kuantitatiboki, gainera, euskaldun kopuru altuena hiri giroan murgiltzen da, eta herri txikietako biztanleek ere, kultura eta ohitura aldetik, ezaugarri komun gehiago dituzte egungo hiritarrekin herri txikietako beren arbasoekin baino. Beraz, hori dena ikusirik, Agenda honen helburuetako bat hirietan euskararen presentzia modu naturalean gerta dadin lantzea izango da.



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Egokituta.

Hori lortzeko, hiri bizitzako edukietan euskararen transmisioa bermatzea izango da tresna nagusienetakoa; izan ere, badakigu irakaskuntzan euskaraz egiten dela eta, beraz, erabilera eta eremu ez-formalak jarri behar direla lan honen oinarrian: familia giroa, aisialdia, kultura eta kirol esparruak, teknologia berriak..., horietan guztietan euskarazko eskaintza landu, lehenetsi eta ezagutarazi beharko dugu. Ildo honetatik, aparteko arreta behar duen arlo bat hiriko hizkuntza paisaia dugu, jakina.

3.4.- HIRI HANDIAK

Hiztun kopuruagatik euskararen etorkizunerako gako diren gune hauetan esfortzu berezia egitea, hizkuntzaren erabilera indartuz, bereziki esparru ludikoan.

1. Kirolaren, artearen, kulturaren... arloetan euskara ohiko hizkuntza izango dela bermatzeko guneak sustatzea.
 2. Hizkuntza paisaian euskararen presentzia areagotzeko neurriak bultzatzea.
- ESEPekeko diru-laguntzak paisaia euskalduntzeko neurriak martxan jartzearekin uztartzea.
 - ESEPekeko diru-laguntzetan tokian tokiko hizkuntza politikan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea zaindu, ume, nerabe eta gazteei arreta berezia eskainiz.
 - Emakida publikoko zerbitzuetan hizkuntza irizpideak txertatzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan (hezkuntza garraio, aisialdia,...) arreta elebiduna bermatuz.

- Zerbitzu publikoetan euskararen erabilera sustatzea, tokian tokiko sozietate publikoetan euskara plana egiteko bultzada ematen.
- Merkataritza eta ostalaritza alorretan oinarrizko euskarazko gaitasun ikastaroak eskaintzea.
- Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan eragitea herritarren hautura egokitzeko.
- Traktoreak diren merkataritza guneetan euskararen presentzia areagotzeko proiektu pilotuak egitea.
- Umeen jolasguneetan euskarazko jarduerak ohikotasunez bultzatzea.

3.5 Elebitasun pasiboa: euskaldun hartzaileak


Arestian esan legez, azken hiru hamarkadetan gure gizarteak asko aurreratu du euskararen ezagutzan, baina oraindik ere hogeita hamabost urtetik gorako biztanleriaren erdia elebakarra da. Bestalde, bigarren hizkuntzen ikaskuntza prozesuetan gertatu ohi denez, hiztun berri asko dago trebetasun hartzaileetan (entzumena, irakurmena) gaitasun handiagoa eskuratu duena trebetasun sortzaileetan (idazmena, mintzamina) baino. Horretan faktore askok eragiten du: ikaslearen ezaugarri eta gaitasun orokorrak, adinak eta abarrek.

Errealitate horretatik abiatuta, gure helburuetako bat izango da euskararen mundura ahalik eta pertsona gehien erakartzea, hau da, oraindik elebakar diren herritar horietako ahalik eta gehienak erakartzea euskararen ezagutza maila batera edo bestera. Horretarako, balioa aitortuko diogu edozein mailatako gaitasuna eskuratzen duen orori, dela maila oinarrizkoa, dela aurreratua, dela adituarena. Euskaraz eskuratutako edozein mailak, ulermen maila apal bat bada ere, euskaraz komunikatzeko eta euskara erabiltzeko aukerak biderkatu egiten baititu.


Izan ere, euskararen erabilerak badu muga nabarmen bat: euskara ezagutzen ez dutenena; horregatik, oso positibotzat jotzen dugu ahalik eta herritar gehienak, euskararen ezagutza gutxieneko bat lortzeaz gain, euskararen ingurunea eta kultura ere neurri batean ezagutzera iristea. Euskararenganako eta euskal kulturarenganako hurbilketa ez dago hizkuntzaren ezagutzaren mende, sentsibilitate eta borondatearen mende baizik, eta, beraz, gaztelaniaren mundutik ere landu daitezke horiek.

Beraz, elebitasun maila minimo bat lortu eta euskara inorentzat arrotz ez izatea lortu nahi dugu. Hauxe izango dugu beste erronka bat: elebakarrak direnak euskararen

8. grafikoa Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. EAE, 1991-2001 (%)



9. grafikoa Elebidunak, erratzasunaren arabera, EAE 2011 (%)



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Egokituta.

mundura gerturatzea, nolabaiteko ezagutza lortzearen. Bide honetan, euskararen oinarrizko gaitasun mailen rola indartzea garrantzitsua izango da.

Euskara neurri batean edo bestean ikastera pausoa ematen duen pertsona orok itzelezko ekarpena egiten die euskal hiztunei, hizkuntzen elkarbizitzari eta elkarbizitza sozialari. Euskaldun hartzailea izatera iritsita ere, erabileraren aldeko jarrera positiboa hartzen badu, euskaraz aritzeko aukerak aniztu egiten dituelako. Horregatik, elebitasun pasibora iritsi direnen ahalegina eta jarrera ere baloratzeko eta txalotzeko jarrera sustatuko dugu. Beraz, euskararen erabilera soziala areagotzeko, garrantzitsua izango da elebidun pasiboen kopurua areagotzea, erabateko elebazarren multzoa gutxitzea, eta baita garapen honen protagonisten errekonozimendu eta onarpena lantzea ere.

3.5.- ELEBITASUN PASIBOA EDO HARTZAILEA

Euskaraz ez dakiten pertsonak euskarara erakartzen ahalegintzea, elebitasun pasiboa eta oinarrizko ezagutza sustatuz eta baita euskara eta euskal mundua ezagutaraziz eta elkarbizitzarekin lotuz ere.

1. Herritar elebazar helduen artean elebidun pasiboen kopurua areagotzea, euskara arrotz eta ezezagun duen herritar kopurua gutxitzearen.
2. Elebitasun pasiboaren balioa nabarmenaraztea, euskara erabiltzeko aukerak ugartzeko eta euskararen erabilera sozialaren zabalkunderako.
3. Euskaraz ez dakitenengan euskararen erabilerarekiko jarrera positiboa areagotzea.

- Euskararen oinarrizko ezagutzaren balioa aitortzea, eta maila hori lortzeko aukerak zabaltzea.
- Oinarrizko euskarazko A1 eta A2 mailak ezartzea eta egiaztatzea, eta ikasleen diru-laguntzetarako kontuan hartzea.
- Euskara ikasteko sentsibilizazioa lantzen eta garatzen jarraitzea.
- Elebitasuna eta elkarbizitza lotuko dituzten mezuak eta ekimenak sustatzea, besteak beste, elebitasunaren balioak gizarteratzeko jarduerak bultzatuz.
- Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenei eragitea (autoeskolak, jubilatuei elkarteak, kultur elkarteak, merkatari elkarteak), ikastaroak euskaraz ere antola ditzaten.
- Euskaldun hartzaileen kopurua handitzeko eta haien arreta erakartzeko bideak erraztea, euskarazko kultur ekoizpenaren bidez, komunikagarritasuna bermatuz eta euskarazko zerbitzu eta produktu erakargarrien eskaintza bultzatuz (familiei, helduei, gazteei...).
- Elebarraren euskararekiko pertzepzio, iritzi eta jarrerari eragingo dien ekimenak sustatzea.
- Eskola eta familiaren arteko sinergia aprobetxatzea, gurasoen eta seme-alaben harremanez baliatuz.
- Euskararen aldeko jarrera asertiboak bultzatzea euskaldun hartzaileen artean.
- Euskara erabiltzeko jarrera asertiboak sustatzea euskaldunen artean.

3.6 Kultur kontsumoa

Eusko Jaurlaritzak euskal kultur ekoizpena laguntzen eta indartzen segituko du. Kultur arloko kontsumo kuantitatiboa baino, kualitatiboa landu behar dugu, kalitateak ekarriko baitu kantitatea ere handitzea. Horren aurrekaria, nola ez, sorkuntza, kalitatezko sorkuntza izango da, eta horixe izango da gure arlo honetan egin beharreko lanetako bat. Euskal merkatuak dituen baldintzez jabetuta ere, ezin dira tamainak ezartzen dituen mugak besterik gabe onartu eta, horren aitzakian, kalitatea auzitan jarri. Guztiz kontrakoa izan behar du apustuak: kalitatea eta merkatuaren beharrak ezagutu eta gure hizkuntzan ere erantzuna ematen saiatzea. Euskaldunok teknologia berrietan eta inguru ezberdinetan murgildurik gaude, eta eskaera horri ere erantzuna eman beharko zaio, lehiatuz, eta gure tresnak erabiliaz.

Hori guztiari eragiteko, **sorkuntzari eta sortutako horien kontsumoari eragiten dioten faktoreak aztertu** beharko ditugu, nola sustatu eta indartu erabakitzeke: sormena sustatzeko lehiaketak, produktua ezagutarazteko bideak...

Liburugintzaren kasu zehatzean, berriz, **euskaraz sortzen, saltzen eta irakurtzen diren liburuazterketa** bat egitea komeni da, euskaraz zer idazten eta argitaratzen den bezain garrantzitsua baita argi edukitzea zer saltzen eta irakurtzen den. Alegia, liburu kontsumitzaileek zer mota, tipologia eta generoko produktuak (teknikoak, eleberriak, dibulgaziokoak...) nahiago dituzten eta gogo horri erantzuten saiatzea. Lan horretan Euskal Irakurketa Sare Publikoaren eta sektoreko eragileen lankidetzak bilatuko dugu. Abiapuntu gisa, ildo hauek jorratzea aurreikusten dugu:

- Euskaraz eskura eduki nahi dugun literatura aintzat hartuta (liburu komertzialen eta ez hain komertzialen arteko oreka bilatuz), **liburuak idaztea edota itzulpenak egitea sustatzea**. Aurkitu beharreko oreka horretan kontuan izan beharko ditugu literatura unibertsalean oinarritzko biblioteka osatuko luketen liburuak, literatur sorkuntza moderno eta aurreratu batean sartuko lirakeekin, irakurle aniztunei erantzungo lieketen generoak, hizkuntzari prestigioa ematen diotenak, euskaraz irakurtzea erakargarri egingo dutenak eta abar.
- Euskal **literatura hainbat euskarritan** eskuragarri egoteko aukerak erraztea eta eskaintza dibertsifikatzea: papera, liburu elektronikoak, audio-liburuak... Hemen teknologia berriek rol esanguratsua izango dute.
- Euskarazko produktuen **kontsumoa/irakurzaletasuna bultzatzea**: aurreko bi puntuetan landutako guztia ezagutarazteko eta, azken batean, kontsumitzeko kanpainak diseinatu, eta herri liburutegiekin elkarlan estua bilatzea kanpaina horien azken publikora errazago iristeko.

Gainera, zorionez, sarritan gertatzen da euskal produktu batek lortzen duen arrakasta beste merkatu batzuetan ere baloratzen dela. Beraz, euskal produkzioari ikusgarritasuna ematea ere lan garrantzitsua izango da, bai produktuaren beraren zabalkundea, bai eta euskararen eta euskarazko kulturaren prestigio soziala areagotzeko.

3.6.- KULTUR KONTSUMOA

Kultura euskaraz kontsumitzea sustatzea, batetik euskarazko sorkuntza bultzatuz eta, bestetik, erdarazko produktuak itzuli eta lokalizatuz. Horretarako hainbat aldagai kontuan izan eta guztien arteko oreka aurkitzen saiatzea: kalitatea, aberastasuna, dibertsitatea, hartzailerik potentzialen kopurua eta nolakotasuna, besteak beste.


1. Kalitatea etengabe indartzea, euskarazko kultur ekoizpenaren esparru guztietan.
2. Euskal kultur industrien lehiakortasuna sendotzea, eskaintza euskarazko kultur merkatuen beharrian eta apetetara eta merkatu horien neurrietara etengabe egokituz.
3. Euskarazko kultur sorkuntzaren prestigio soziala indartzea.
4. Euskarazko kultur ekoizpenaren ikusgarritasuna areagotzea, inguru analogiko nahiz digitaletan.

- Euskarazko liburugintzaren sektoreko eragileekin elkarlanean (idazleak, itzultzaileak, argitaletxeak, liburu-dendariak), irakurzaletasunaren eta euskarazko liburuaren eskaintza eta kontsumoaren bilakaera aztertu ondoren, irakurzaletasuna eta kontsumoa areagotzeko ekimenak gauzatzea, eskaintzaren egokitasuna eta kalitatea zainduz, kontuan izanik, betiere, euskarazko irakurlearen apetak asebetetzeko bertan sortutako eta euskaraturiko liburuak, biak ala biak, direla ezinbestekoak.
- Liburutegi publikoetan zein bestelako irakurketa-guneetan irakurzaletasuna dinamizatzeko jarduerak sustatzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutakoak.
- Hedabideetan irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak indartzea, eta liburuaren publizitateari erraztasun ekonomikoak ematea. Erdara nagusi den hedabideetan, bestalde, euskarazko literatur ekoizpenaren berri ere ematea.
- Paperez besteko euskarrietan argitaraturiko euskarazko liburuak (liburu elektronikoak, audioliburuak, bideo-liburuak...) ekoizpena eta kontsumoa sustatzea, besteak beste, euskarri horietan argitaraturiko euskarazko liburu eta argitalpenen katalogo bateratu eta publiko osatuz, eta liburu elektronikoetan euskarazko hiztegiak integratzeko behar diren prozesuak erraztuz.
- Euskarazko kultur sorkuntza eta sortzaileak zirkuitu eta merkatuetan sartzen erraztea, sorkuntza alor ezberdinen izaera eta berezitasunen arabera, eta euskarazko sorkuntza eta sortzaileen lana hedatzeko, aitortzeko eta prestigiatzeko ekimenak bideratu edota sendotzea (sariak, lehiaketak, erakusketak, jaialdiak...).
- Euskarazko kultur ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeko, euskarri guztietako hedabide publiko zein pribatuen bidez gizarteratuko diren komunikazio-erakundeak indartzea, bereziki zainduz sareko kultura agenda erakargarri eta behar bezala eguneratu baten erreferentzialtasuna, askotariko erakunde eta eragileen arteko lankidetzan.
- Atzerriko hizkuntzetan ekoiztutako puntako eta kalitatezko zinea telebistan euskaraz azpigitulaturik ikusteko aukera garatzea.
- Euskarazko kultura ekoizpenen sustapenean hedabideen rola indartzea.

3.7 Etorकिनengana hurbiltzea

Gurearen neurriko hizkuntza komunitate baterako eta, bi hizkuntza ofizial izan arren, bion arteko egoera sozial desorekatua duen gizarte baterako, beti gogoan hartu beharreko erronka izango da etorkinen gureganatzea, bai hizkuntzaren aldetik, bai kultur eta komunitate ikuspegitik. Egoera ekonomikoaz gain, gaur egungo egoerak eta globalizazioak eraginda, geroz eta ohikoagoa izango da leku ezberdinetako pertsonak gurera etortzea, baita alderantziz ere. Beraz, pertsonen mugikortasun honek botere publikoengan eragina izan beharko du, bakoitzari dagokion neurrian. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak, gizarte kohesioa etengabe lantzeko dituen helburuen barruan, arreta berezia jartzen jarraituko du etorkinen integrazioa ahalik eta erosoena eta osoena izan dadin, haiek gurera egin dezaketekaren ekarpena balioetsiz, eta gure hizkuntzan eta kultura errealitatean haiek murgiltzeko aukera eta baliabide egokiak eskainiz. Azken urteotan hasitako bideari jarraipena emanez, eskolarekin, euskaltegiekin, toki erakundeekin eta gizarteratzearen arloko erakunde eta elkarteekin nahiz etorkinen elkarteekin lankidetzan, etorkinak eta haien seme-alabak euskarara hurbiltzeko eta euskal kulturaz jabetzeko egitasmoak bultzatuko ditugu.

10. grafikoa Atzerritarren bilakaera. EAE, 2000-2011



Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. INE.

Beraz, arlo honetan lehenbizi egin beharreko lana informazioa eta erraztasunak ematearen bidetik etorriko da, betiere mugak eta egoera pertsonalak zein linguistikoak kontuan izanda. Sentiberatasun lanarekin batera, etengabe hobetzen saiatuko gara hezkuntza sisteman haur eta nerabeak elebitasunean integratzeko programak eta bideak; helduen euskalduntzean, berriz, sendotuko ditugu etorkin helduak euskarazko oinarrizko ezagutzak eskuratzeko ikas-moduluak; eta, azkenik, haur, nerabe eta helduei dagokienez sustatuko dugu etorkinek aisialdi, kirol, gizarte jardueretan eta abarretan parte hartzeko aukera zabala izatea, partaidetza komunitario hori ere euskararen jabekuntzarako bide izan dezaten.

3.7.- ETORKINAK

Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbilaraztea, gertutasun horren abantailaz ohartaraziz.

1. Etorkinari bi hizkuntza ofizialen berri ematea eta eleaniztasunaren onuren jabe izan dadin urratsak egitea.
 2. Euskara etorkinen eskura jartzea geure gizartean integrazteko eta ezezaguna zaien eremua bistarazteko.
- Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haienzako programa berezien garapena sustatzea.
 - Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programa berezien garapena sustatzea.
 - Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik).
 - Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak bultzatzea.
 - Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, euskara ikastearen onurak nabarmenduz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartzea.

3.8 Komunikatzeko estandarrak

Euskararen corpusak aurrerapen handia izan du azken urteotan. Erabilera esparru berriak irabazi ahala, esparruotako komunikazio beharrak asetzeko baliabideak garatu ditu. Hizkuntzaren beraren ezaugarriei begira, nagusiki etxeko eta lagunarteko inguruneetan erabiltzeko hizkuntza izatetik era guztietako erabilera esparruetako (eskola, unibertsitatea, hedabideak, teknologia, lan mundua...) hizkuntza beregaina izatera iritsi da. Ildo honetan, euskara ume, gazte eta helduek, beren komunikazio behar eta giroen arabera, modu naturalean erabiltzeko egokitzen jarraitu behar dute. Euskarak baditu nahikoa baliabide edozein egoeratan tresna baliagarria izateko, baina hori landu eta zabaldu egin behar dugu, egia baita esparru eta adin tarte batzuetan –gazteen hizkera kolokial eta bizian, batez ere– naturaltasun eta bizitasun falta nabari dutela maiz hitzunek.

Beraz, adierazkortasun komunikatiboari garrantzia emanez lan zehatza egingo dugu, hizkuntzak malgutasuna, zehaztasuna eta bizitasuna irabaz ditzan. Arlo honetan, gainera, gune geografiko euskaldunen eredugarritasuna ere garrantzizkoa izango da, hiztegia elikatu eta erregistro ezberdinak garatzeko bidean.

Corpusaren garapen teoriko eta praktikoa, ordea, ez da nahikoa, erabilera baita, hasieran esan dugun moduan, gure helburu nagusietako bat. Horregatik, landuko ditugun hizkuntza baliabide horiek denak ezagutarazteko eta hiztunek beren eguneroko hizketaldietan erabil ditzaten bultzatzeko bideak ere jorratuko ditugu.

3.8.- KOMUNIKAGARRITASUNA ETA ADIERAZKORTASUNA

Euskal gizarteak gaur egun dituen komunikazio beharrak asetzeko, euskararen komunikagarritasuna eta adierazkortasuna etengabe landu eta garatzea, euskararen corpusak hiztunen esku jartzen dituen ezagutza eta baliabideen erabilera sustatuz.

1. Euskararen corpusa garatzen, berritzen eta aurreratzen jarraitzea, euskara estandarrean zein euskalkietan eta erregistro eta hizketa eredu desberdinetan euskararen zehaztasuna, bizitasuna eta adierazkortasuna aberastuz eta ahalmen komunikatiboa sendotuz.
- Euskararen erreferentzia-corpusen garapena sustatzea, hainbat erakunde eta elkarterekin elkarlanean euskararen corpusa estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatuz eta bultzatuz, berauen artean arreta berezia eskainiz euskararen erreferentziazko corpusen proiektuei eta alorrez alorreko terminologia-lanei eta hiztegitzinta orokorrari.
 - Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea
 - Euskaldun berrientzako material irakurgai moldatu eta mailakatuak sortu eta merkatura daitezen sustatzea.
 - Terminologia-lana ahalik eta eremu gehienetara hedatzea, Terminologia Batzorde-atal Bereziaren baitan urteko jarduera-planak eginez, lehentasunak finkatuz, glosario terminologikoak prestatuz eta onartuz, onartutako terminologiaren zabalkundea eginez.
 - Gazteen hizkerari arreta berezia eskaintzea, horretarako ekimen zehatzak bultzatuz (eremu digitaleko komunikazio erregistroak, hizkuntza erregistroen araberako esamoldeak lantzeko egitasmoak, idazlan-lehiaketak, komiki-lehiaketak, etab.).


3.9 Hizkuntza eskubideak

Euskararen auzian hizkuntza eskubideen atala garrantzitsua da, eta administrazioak bertan duen zeregina, erabakigarria. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak badu zeregin zehatza garatzeko beharra, eta horrelaxe islatu da arlo bakoitzeko plangintzetan. Beraz, Jaurlaritzaren sail guztiek hori kontuan izanik, jarrera sendoa izango dute herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko eta bideratzeko. Gainera, administrazio guztia norabide berean joan dadin eta euskararen erabilera herri administrazioetan normalizatzeko V. plangintzaldian sartu garela kontuan hartuz, bertan markaturiko helburuak lortzera bideratuko ditugu indarrak. Horretarako tresna zuzenak V. plangintzalditik eratorritako sail bakoitzeko Erabilera Planak izango dira, non euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatera zuzenduriko helburu eta ekintza zehatzak jasoko diren. Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plan Nagusiaz gainera, Osakidetzak, EHUK, Justizia Administrazioak eta Ertzaintzak beren plan propioa izango dute, eta horietan guztietan ere euskara lan hizkuntza izatera bideratutako egitasmoak bultzatzeaz gainera, arreta berezia jarriko da zerbitzu hizkuntza erabat normalizatua izan dadin, herritarrek hizkuntza eskubideak betetze aldera.

IV. plangintzaldiko amaierako balorazio txostenean detektaturiko hobekuntza beharrak kontuan hartuta osatu da V. plana, eta hobekuntza arlo horiek zuzentzea izango da lehenetsitako esparruetako bat. Eta, noski, 86/1997 Dekretuak dioena betetzeko eta etengabe hobetzen eta unean uneko beharretara egokitzen joateko, planaren tar- teko balorazioa egingo dugu 2015ean.

Administrazioaz gain, enpresa pribatuek ere hizkuntza eskubideen inguruko diskurtsoa barneratu eta bere egin dezaten lan egingo dugu, eta, lehen aipatu dugun moduan, enpresetako euskara planak sus- tatzen ere ahaleginduko gara. *Alabaina, administrazioak edota* enpresa pribatuek izango duten jarreraz gain, biztanleria da honen guztiaren protagonista, eta bizitza- rako esparru guztietan dituen hizkuntza eskubideez jabetu behar duena, jarrera proaktiboa garatuz, inongo konplexu edo gatazka kutsurik gabe. Jakina, herrita- rrak dagokion administrazioaren babesa sumatu behar du, eta horretarako tresnak eta baliabideak jarri beharko dira abian. Lan ildo honetan Elebideak eta Arartekoak zeregin garrantzitsua izango dute.

11. grafikoa Elebiden jasotako keak esparruen arabera 2012 (%)



Iturria: ELEBIDE. 2012ko Jarduera Txostena. Egokituta

Halaber, bai 6/2003 Legeak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak, eta 2/2012 Legeak, hura aldatzekoak, bai 123/2008 dekretuak, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, eta 204/2010 dekretuak, hura aldatzekoak, herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak zaintzeko, dekretuon aplikazio esparruan, hau da, merkataritza gune handietan, bost urte hauetan egin diren urratsak ebaluatuko ditugu, beharrezkoak izango lirakeen zuzenketak ezarriko ditugu eta, hala balegokio, araudiari garapen egokia emango diogu.

3.9.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Legeriak herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak progresiboki bermatzeko neurriak hartzea, eta, bereziki, Administrazioarekiko harremanetan herritarrek euskara nahiz gaztelania erabili eta artatuak izateko duten eskubidea bermatzea, betiere euskara zerbitzu hizkuntza nahiz lan hizkuntza legez gero eta hedadura handiagoan erabiliz.

1. Herritarren hizkuntza eskubideak eraginkortasunez bermatzeko urratsak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, osasun zerbitzuetan, segurtasun zerbitzuetan eta justizia administrazioan. EAeko gainerako administrazioetan herritarren hizkuntza eskubideak eraginkortasunez bermatzeko jarraibideak ematea.
2. Gainerako zerbitzu publikoetan eta, oro har, gizarte bizitzako arlo guztietan euskara erabiltzeko aukerak bermatzea, bereziki hezkuntzan, hedabideetan eta kontsumoaren esparruan.
3. Herritarrei beren hizkuntza eskubideak baliatzeko babesak ematea.

- Elebideren jarduera sendotzea.
- Arartekoaren eta Elebideren arteko lankidetzak herritarren hizkuntza eskubideak indartzeko.
- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia garatzea.
- Eusko Jaurlaritzan euskara lan hizkuntza izan dadin ekimen zehatzak bultzatzea ("Aldahitz" programa, iraupen laburreko ikastaroak, gaitasun ikastaroak...).
- Eusko Jaurlaritzaren arau-jardunean aginduzko hizkuntza-txostenak egitea, haien legezotasuna eta eragina hizkuntzaren ikuspegitik bermatzeko.
- Justizia Administrazioaren Euskararen erabilera normalizatzeko plana garatzea.

- Auzia Euskaraz proiektua bultzatzea:
 - Eragile juridiko bakoitzak bere eragin eremuan gai judizialean euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak batu, koordinatu eta antolatzen lan talde edo batzordeak sortzea.
 - Talde horietan egiten denaren, eta Justizia Administrazioak egindakoa- ren edo egingo duenaren berri zabaltzea eta komunikatzea bakoitzak bere eragin-eremuan.
 - Arlo juridikoan diharduten profesional euskaldunen sareak sortzea
 - Eusko Jaurlaritzako eta, zehazki, Epaibi Hizkuntza Normalizazioko lantal- deko ordezkariak koordinatutako ekintza eraginkorrak bultzatzea.
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plangintza onartu eta garatzea.
- Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2013-2019) garatzea.
- Irakaskuntza edozein hizkuntza ofizialetan jasotzea bermatzea.
- Herritarrek informazioa eta edukiak paperean inprimatutako hedabideez, irrati-telebistez eta Internetez jasotzeko eskubidea sendotzea.
- Beste administrazioetako euskararen erabilera planen garapenerako irizpi- deak ematea, eta jarraipena egitea erakunde arteko elkarlana sustatuz.
- Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak babestea .
- Gizarte arlo ezberdinetan (kulturgintza, arlo sozioekonomikoa...) euskara erabiltzeko aukerak sustatzea.
- Plataforma digitaletan administrazioaren komunikazioa lantzea euskaraz ere, hizkera argia eta komunikagarritasuna bultzatuz.

3.10 Euskarazko jardunaren erakargarritasuna eta prestigioa

Bizi dugun egoera soziolinguistiko desorekatuan, euskarazko jardunak etengabe pre- sentzia eta prestigioa irabaz ditzan lan egingo du Jaurlaritzak, oraindik ere –nahiz eta egoerak zerikusirik ez izan duela hamar edo hogeit hamar urte zuenarekin– gizartearen parte batek ez baitu zeharo barneratua bi hizkuntza ofizialen berdintasuna. Esparru publikoa garrantzitsua da horretarako, eta administrazioak badu zeregin zehatza, ekimen hori bultzatu eta bideratzeko garaian. Hizkuntzak erabiltzeko dira, balio sin- bolikoetatik harago, erabiltzen diren heinean hartzen baitute benetako balioa. Beraz,

garrantzitsua da jarraitzea euskara hizkuntza baliagarri eta komunikaziorako egoki gisa herritarren artean gero eta zabalduegoa dagoen pertzepzioa indartzen. Aldendu egin behar dugu hizkuntzaren eta elebitasunaren gaineko irudi ezkor eta derrigorrezkoetatik. Euskararekin irudi positiboak eratu eta sustatu behar dira, etorkizunekoak, euskararen mundutik at dauden pertsonentzat erakargarri eta interesgarri bilakatu. Euskara ez da inola ere ikusi behar, ez gaztelaniarekin ez beste hizkuntzekin kontrajarrita. Aitzitik, euskara –edozein hizkuntza bezala– pertsonarentzat aberasgarri den pertzepzioa da gailenaraztea lortu behar duguna, euskaraz lantzen, transmititzen eta jasotzen diren edukiak eta munduak aberasgarri diren heinean. Ikuspegi honetatik, euskarak batasunerako balioa lortu beharko luke, kohesiorako tresna izatera iritsiz eta orain arte bertan murgildu ez direnentzat ere tresna baliagarria eta, batez ere, erakargarria izatea lortuz.

Erakarmena eta prestigioa eskutik doazenez, bigarren hau lantzeko ere berariazko urratsak egingo ditugu, batez ere proiektzioa landuz, bai barrukoa eta baita kanpukoa ere. Horretarako, besteak beste, euskararen kalitatezko erabilera saritzen duten ziurtagiriak indartuko ditugu, eta Jaurlaritzaren beraren jardun publikoan eredugarritasuna landuko dugu, komunikazio instituzionalean eta gobernukideen jardunean euskarak behar dituen lekua eta pisua izan ditzan. Azken batean, ildo honetan ere, euskara komunikazio hizkuntza ohizkoa eta normala izateak indartuko du euskararen prestigioa. Administrazioaren praktika onen zabalkundeaz gainera, euskarari prestigioa emateko jarduketak bultzatuko ditugu, besteak beste, gizartean lidergoa duten pertsonen laguntzaz baliatuz.

3.10.- ERAKARMENA ETA PRESTIGIOA

Euskararen erakarmena lantzea eta hedatzea, euskararen irudiari prestigioa ematea eta euskararekiko identitate askotarikoak bultzatzea.

1. Euskararekiko atxikimendua eta euskararen erabilera bultzatzea sentiberatze programen bitartez.
 2. Gizarte bizitzaren alor guztietan, bereziki lan munduan, kirolean, kulturean eta komunikazioan euskararen erabileraren prestigioa indartzea.
 3. Euskara euskal gizartearen kohesiorako osagai legez hartua izatea.
- Preskriptore ezagun eta erreferente direnen eskutik, euskararen aldeko jarrera eta erabilera sustatzea.
 - BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria garatzen jarraitzea, hizkuntza kudeaketak kalitate prozesuarekin duen lotura gizarteratuz.

- Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak nabarmentzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongizatearekin identifikatzeko.
- Euskara gazteen harremanetan hizkuntza bizi eta erabiliagoa izan dadin komunikazio ekintzak sustatzea.
- Erreferentziako euskarazko kultur sortzaileen irudia gazteek erabiltzen dituzten komunikazio zirkuituetara proiektatzea.
- Kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara ere komunikazio hizkuntza ohikoa izan dadin neurriak bultzatzea.
- Kirolari profesionalekin eta haien klub eta enpresekin akordioak lortzea, ohiko komunikazioan euskara ere erabil dezaten.
- Elebitasunaren balioak gizarteratzeko ekimenak sustatzea.

3.11 Informazio eta komunikazioaren teknologiak

Euskara etorkizunerako tresna komunikatiboa izatea bultzatu nahi dugun neurrian, ezinbestekoa da komunikatzeko esparru ezberdinetan landu eta jorratzea. Horietako bat informazio eta komunikazioaren teknologien (IKT) mundu zabala da, eta pauso sendoak bezain zorrotzak eman behar dira arlo hau lantzeko. Gaur egun, IKTak eta horien erabilera ez dira aukerako kontuak; hizkuntza batek, edozein dela ere, eremu honetan presentzia behar du izan, gure bizitzaren parte eta esparru askori gero eta gehiago eragiten baitiote.

Euskarak baditu arlo honetan indarguneak, bertako sortzaileen dinamismoari esker; talde eta enpresa ugari daude arlo honetan euskara erabil dezaketenak, eta hori sustatu beharra dago. Gainera, teknologia berriak gure aliatu bihurtu behar ditugu eta sarea euskaldundu; ez gehien erabiltzen diren tresnak (bilatzaileak, sare sozialak...) itzuliz soilik, baita euskarazko edukiak, aplikazioak sortu/lokalizatu eta sarean esku-agarri jarri ere.

Horrek guztiak, hizkuntzari erabilgarritasuna eta prestigioa emateaz gain, erabilera sustatzeko lanean ere zuzenean eragingo du, eta euskara sarean (arlo pertsonal nahiz profesionalerako) modu naturalean erabiltzeko bidean pauso garrantzitsua izango da.

3.11.- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Informazio eta komunikazioaren teknologiak –hizkuntza teknologiak barne– euskararen garapenerako baliatzea, horretarako bideratutako ekimenak sendotuz.

1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea.
 2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea.
 3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea.
 4. .eus domeinu orokorraren garapena sustatzea.
- Hizkuntzen industria indartzeko egitasmoak bultzatzea.
 - Aisialdirako sareko euskarazko edukiak gehitzea.
 - Komunikazioa bultzatzeko gizarte sare birtual euskaldunak sustatzea.
 - Erabilera gero eta handiagoa duten gailu teknologiko berrietara egokitutako aisialdi aplikazioak sortzen laguntzea.
 - Bideo-jokoen alorrean eragitea, euskarazko produktuak ere ekoiztu eta hedatu daitezen.
 - IKTetan eta sarean euskararen erabilerari bultzada emango dioten berrikuntzak propio asmatu eta garatzea sustatzea.
 - Merkatuan agertzen diren berrikuntza arrakastatsuenak ahalik eta azkarren lokalizatzea euskarara.
 - IKT inbentarioa etengabe eguneratzea.
 - Sarean informazio gune iraunkorra eguneratuta mantentzea.
 - Azterlanak bultzatzea: euskarazko tresnen presentzia, erabilera eta posizionamendua neurtzeko.
 - Euskal Wikipedia (EW) sustatzea edukiak txertatuz; EWren kokapena aprobeztatzea euskarazko edukietarako sarbide gisa, EWn erreferentzia eta lotura egokiz elikatzea, ikastetxeetan eta unibertsitateetan EWraiko artikulua sortu eta itzultzea, EWn edukiak txertatzeko lankidetzak sustatzea (zientzia, teknologia, literatura...).
 - Euskara ikasteko tresna berriak sarean ipintzea.
 - Interneteko eragile pribatu nagusiekin elkarlanerako bideak jorratzea.
 - Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.
 - Euskarazko tresnak sortzen direla bermatu eta bultzatzea.
 - Aplikazioak euskarara lokalizatzea.

- Hiztegi elektronikoak, hiztegien pluginak, corpusak, hiztegi entziklopediakoak, itzulpengintzari laguntzeko tresnak, itzultzaile automatikoa eta beste-lako tresnak sarean erabiltzaileen eskura jartzen jarraitzea.
- Itzulpen automatikorako tresnak sortzea eta garatzea.
- Euskarazko zuzentzaile ortografikoak etengabe hobetu eta softwareen bertsio berrietara egokitzea sustatzea, ofimatika produktuetan, nabigatzaileetan, edizio-tresnetan eta gainerakoetan.
- .eus domeinua ahalik eta esparru gehienetan erabil dadin neurriak hartzea.

3.12 Hizkuntza politikaren inguruan akordioa

Euskararekin lotu beharreko ideiek eta asmoek ikuspegi positiboa izan behar dute. Garrantzikoa da euskararen erabilerak eta haren inguruko ekimenek oinarri integratzailea, kohesioaren aldekoa, izatea, eta hori bereziki garrantzikoa da mundu honetan mugitzen ez diren pertsonentzat.

Hala eta guztiz, akordio eta kohesio horiek ere barne ikuspegi bat izan behar dute, asko baitira euskararen munduan egon eta proiektu bateratzaile jakin bat ez dutenak. Euskaingintzaren arloko hainbat talderen lankidetzaz baliatzeko aukerak badaude, eta horien ekarpenak interesagarriak izan daitezke hainbat eta hainbat esparrutan. Hortaz, ESEPen planteamenduak gure eginez, Eusko Jaurlaritzatik Agenda honetan ezartzen diren ildoak landuko ditugu, eta ESEPen helburuekin bat egiten duten euskaingintza sozialeko eragileen ekimenak sustatuko ditugu, Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren programen bitartez.

Hortaz, Eusko Jaurlaritzak hitzematzen du etengabe landu eta elikatuko duela euskara biziberritzearen inguruko adostasuna, bai gainerako erakunde publikoekin, bai eragile politiko, ekonomiko eta sozialekin, bai herritarrekin oro har, sinetsita baikaude adostasun soziala eta politikoa dela euskarari, elebitasunari eta hizkuntza elkarbizitzari haitzea eman diezaiekeen hausporik sendoena.

3.12.- HIZKUNTZA POLITIKAREN INGURUAN AKORDIOA

Hizkuntza politikaren inguruko adostasun sozial eta politikoa sendotzea.

1. Euskararen erabilera areagotzearen aldeko diskurtso erakargarri eta integratzailea ekoiztea, euskal gizarteko sentsibilitate ezberdinek bere egingo dutena, ondorengo helburu bateratzailearen alde: ekitatea eta inklusioa jomugan dituen elebitasun orekatu eta iraunkorra.
 - Euskararen gaineko diskurtsoak kontrastatu, eta oinarrizko diskurtso bateratzailea adostu eta gizarteratzea.
 - Euskarari eta hizkuntza bizikidetzari buruz herritarrek dituzten jarrera eta motibazioen azterketa, besteak beste hizkuntza erabileretan faktore subjektiboek duten eragina eta hauek faktore objektiboekin duten lotura kontuan hartuz.

3.13 Kanpo proiektzioa

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean europar Estatu nagusiek hitzartu zituzten xedapenak aintzat hartuz, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, lau esparrutan egingo dugu lan.

Batetik, euskararen lurraldeetako erakundeekin eta euskara eragileekin elkarlanean arituko gara, batik bat Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea Institutuarekin eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin. Biokin sinatuak ditugun hitzarmenei jarraipena ematea eta sendotzea izango da datozen urteotako eginkizun nagusia, orain arte egindako bidea sendotuz eta euskarak bere hiru lurralde nagusietan aurrerabide sendoagoa izan dezan. Jakina, hori dena lurralde esparru bakoitzeko erakundeen eskumenak erabat errespetatuz eta elkarlan zintzoan oinarrituz.

Bestetik, Estatuan, oro har, euskararenganako ezagutza eta estimazioa handitzeko Estatuko administrazioak egin beharko lituzkeen eginkizunak bete ditzan saiatuko gara, ez baita inola ere normala gaztelania ez beste gainerako hizkuntzak, testuinguru elebakarreko espainiar herritarrentzat, oraindik ere arrotz eta ezezagun izatea.

Hirugarrenik, nazioarteko esparruan euskararen informazioa eta euskararekiko estimazioa zabaltzen jarraituko dugu, bai Euskal Etxeekin elkarlanean, bai munduko hainbat unibertsitatekin hitzartuta, bai eta hizkuntza eta kulturari buruzko bestelako foro, topagune eta sareetan presentzia aktiboa izanda.

Azkenik, Garapenerako Euskal Agentziaren bitartez, nazioarteko kooperazioaren arloan kooperazio linguistikoaren kontzeptua landu eta baliatuko dugu, munduan zehar tokiko hizkuntzak berreskuratzeko egiten ari diren esperientzia eta ahaleginetan gure ekarpena egiteko eta haiengandik gurerako ere ikas dezakeguna gureganatzeko.

Kanpo proiektzioaren arlo honetan Lehendakaritza Saileko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABEk eta ETXEPARE Euskal Institutuak elkarlanean jardungo dute. Jakina, Eusko Jaurlaritzak euskara eta euskal kultura kanpoan eta nazioartean hedatzeko eta sustatzeko berariaz sortua den ETXEPARE Euskal Institutuak pisu berezia izango du.

3.13.- KANPO PROIEKZIOA

Euskararen hedapena bultzatzea EAETik kanpo.

1. Euskararen lekua eraikitzea munduko hizkuntzen artean.
 2. Euskararen gainerako lurraldeetako erakundeekiko elkarlana sendotzea.
 3. Espainiar estatuko hizkuntza aniztasuna sustatzea.
 4. Euskararen lurraldeen gertuko ingurunean hizkuntzen nazioarteko proiektzioan diharduten erakundeekin lankidetzak sustatzea (Institut Ramon Llull, Xunta de Galicia, Instituto Cervantes, Instituto Camoes...).
- Euskarak Europako eta munduko hizkuntza aniztasunari egiten dion ekarpena erakusteko, eta euskarak munduan dituen zirkuituak ezagutarazteko komunikazio-ekintzak diseinatu eta gauzatzea.
 - Eremu ertain edo urriko hizkuntzak dituzten beste lurralde batzuetako esperientziak eta praktika onak aztertzea.
 - Munduan zehar dauden Euskal Etxeetan euskararen ikaskuntza sustatzea.
 - Munduko unibertsitateetan euskara eta euskal kulturako irakurlegoak eta katedrak hedatzea.
 - Euskara gaitasunaren egiaztagiriak eskuratzeko probak antolatzea euskal eremutik kanpo.
 - Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenak garatzea, eta hango euskararen sustatzaileen jarduna laguntzea.
 - Galiziako Xuntarekin, Kataluniako Generalitatearekin eta Balear Uhartee-tako Gobernuarekin sinatutako lankidetzak hitzarmena garatzea.

- Europar hizkuntza aniztasunaren aldeko sareetan parte hartzea, eta Europar Batasuneko erakundeei eragitea europar hizkuntza politika eraginkor baten alde.
- Nazioarteko kooperazioaren esparruan kooperazio linguistikoa txertatzea.
- Hizkuntza aniztasuna nazioartean sustatzeko lankidetzak hitzarmenak garatzea.
- Europako Hizkuntzen Industrien alorreko sare eta foroetan Euskararen Industrien presentzia eta parte hartzea sustatzea.
- Euskara biziberritzeko prozesuaren bilakaera eta EAEko hizkuntza politika nazioartean ezagutzera ematea, biltzar, proiektu eta abarretan parte hartuz.
- Europako diru-laguntzez baliatzea hizkuntzaren gaineko zeinahi arlotan ikerketa eta lankidetzak bultzatzeko.

4. KOSTU AURREIKUSPENA


Aurreikuspen ekonomikoa, urteko (erref. 2014)

Euskararen Agenda Estrategiko honen garapenerako aurreikusten diren kostu ekonomikoak ondoko koadroan ageri dira. Ematen diren zenbatekoak Eusko Jaurlaritzaren 2014ko aurrekontuetan dauden dotazioak dira. Hortaz, Agendaren xedeak eta ekin-tzak definitzerakoan, aurreikusi da 2015 eta 2016an ere gutxienez antzeko kredituak izango direla Agendaren garapenerako.

Unitatea	Aurreikuspen osoa
HPS+HABE	47.971.748
Etxepare Euskal Institutua	869.253
Hezkuntza euskalduntzeko programa	41.995.388
Euskara atalak	685.000
IVAP Euskara	10.674.234
Guztira	102.195.623
Eusko Jaurlaritzaren Erabilera Plana	3.407.100
Osakidetzaren Erabilera Plana	4.633.507
Justizia Adm. Erabilera Plana	1.565.000
EITB Erabilera Plana	lantzen
Ertzaintzaren Erabilera Plana	lantzen
Guztira	111.801.230 (+Ertz.+ EITB)

5. OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA

- Euskara 21. Itun berri baterantz (Euskararen Aholku Batzordea, 2009ko urtarrila)
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. ESEP (Euskararen Aholku Batzordea, 2012ko uztaila)
- 2012-2016ko Gobernu Programa. X. Legegintzaldia
- EAEko Herri Administrazio eta Erakundetan euskararen erabilera normalizatzeko planetarako irizpide orokorrak. V. Plangintzaldia (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013)
- V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013)
- V. Mapa Soziolinguistikoa. 2011 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2014)
- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeek euskara sustatzeari eskainitako baliabideen azterketa. 2012 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013)
- Arrue proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. LHM4ko eta DBH2ko ikasleak (EAE). Eraitza nagusien txostena (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, ISEI-IVEI, Soziolinguistika Klusterra, 2012)
- Hizkuntzen erabileraren kale neurketa (Soziolinguistika Klusterra, 2011)



Eusko Jurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

